

Domekan Emakumeen Lasterketa jokatuko da. Garazi Sampedrok parte hartzeko deia egin die emakumeei / 16



Pedro Miguel Etxenike zientzialaria Durangoko solasaldian / 9



EHU

933 nobedade aurkeztu eta 200 ekitaldi egingo dituzte Durangoko Azokan / 26



INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO EGUNA / 13-21



"JENDEAK EZ DAKI ZELAKO LAN GOGORRA DAGOEN HONTZA MUSEOAREN ATZEAN"

URTEURRENA / Hontza Museoak 10 urte egin ditu Mañariko Zumelaga eraikinean. Enrike Huerta museoko presidentearen eta Leire Huerta zuzendariaren lanari eskerrak, munduko biodibertsitatearen lagin handi bat denen eskura dago / 2-3

Leire Huerta eta Enrike Huerta, Mañariko Hontza Museoan.

SAN PIO BERRI ETXE SUSTAPENA ELORRION

- 2,3,4 LOGELAKOAK
- APARKALEKUA
- IGOGAILUA
- BERDEGUNE PRIBATUA

INFO: -747 483 666
-ARGIÑETA INMO



Enrike eta Leire Huerta museoan, atzean japoniar batek emandako karramarro erraldoia dutela.

"Orain 10 urte ezinezkoa zirudien hemen museo bat zabaltzeak"

ENRIKE HUERTA / LEIRE HUERTA HONTZA MUSEOKO PRESIDENTEA ETA ZUZENDARIA
Natur zientzien Hontza Museoak 10 urte bete berri ditu gaurko kokalekuan, Mañariko Zumelaga eraikinean. Joan zen astean ekitaldia egin zuten urteurrena ospatzeko

Joseba Derteano MAÑARIA

Naturako mirariz jantzita, Hontza Museoa erakusketa leku bat baino askoz ere gehiago da: bizitza bateko ametsaren isla da. 60 urte baino gehiagoan altxor naturalak biltzen eta mimoz zaintzen daramatzan Enrike Huertak eta bere alaba Leirek, museo zuzendariak, naturagazko maitasuna darion familia-proiektu bihurtu dute espazio hori. 2.000 pieza dituzte ikusgai, eta 45.000 inguru biltegi-gordeta, espazio faltagaitik.

Zelan joan zen urteurreneko ospakizuna?

Enrike Huerta: Bikain, zoragarri. 40 bat lagun batu ziren, lagunak eta agintariak: Kultura arloko sailburuordea, Kultura

"BIZI NAIZELA MUSEOA DURANGON EZ IKUSTEA, HORREK EMATEN DIT MINA BIHOTZEAN"

Saileko foru diputatua, alkateak, Mankomunikateko presidentea...

Leire Huerta: Bai, pozik gaude. Beti duzu ardura ea jendea etorriko den, eta gela osoa beterik ikustea pozgarria izan zen. **Museoa zabaltzea lan handia izan zen?**

L.H.: Bai, handia. Emaizta ikusita merezi izan du, baina jendeak ez daki zelako lan gogorra dagoen Museoaren atzean. Guk hau hartu genuenean zulo bat zen: beltza, zikina eta iluna. Orain 10 urte ezinezkoa zirudien hemen

museo bat zabaltzeak. Geuk egin dugu dena, geure eskuekin. Hondeamakina txiki bat hartu, harririk mugitu, garbitu, pintatu, beira-arakak muntatu... Hamar urtean apurka egin dugu, solairurik solairu eta gelarik gela. Lan gogorraren emaitza da.

Azken batean, familia proiektu bat da. Horrela bizi duzue?

L.H.: Bai, familia proiektu bat da. Hau guzti hau nire bizitzaren parte izan da, jai nintzenetik. Ni neu ere museo pieza bat naizela esaten dut. Gure oporrak beti antolatzen ziren museo bat ikusteko eta itsasontziak zeuden tokian. Bartzelonako lagun asko sasoi hartakoak dira, hango barkuetan joaten zelako aita. Euren seme-alaben lagunak gara gaur egun. Gerora, museoa prozesu natural baten ondorioa izan zen. Beste biderik ikusi ez eta bildumari irteera bat eman guran, familia horretan inplikatu ginen. Besoak gurutzatuta egon izan bagina, museoak zabaltu barik jarraituko zuen, beharbada. Gure bizitza honen inguruan mugitu izan da beti, eta horretan jarraitzen dugu. Aita laborategiko lanaz arduratzen da, eta nire senar Igor Notario eta biok kudeaketaz. Ondo elkar hartzen dugu.

Enrike, nondik datorkizu bildumagile afizioa?

E.H.: 12 urte nituenetik nabil piezak batzen. 14 urte gurasoek Donostiako Aquariumera eramane ninduten. Zer zen hura! Orduan jabetu nintzen Durangon ez zegoela horrelakorik. Orditik dator museoaren ideia. Gerora, utopia bat zena errealitate bihurtu zen.

Zelakoa da zure lanegun bat museoan?

E.H.: Goizetan ilobei arretea eman, erosketaren bat egin, kotxea hartu eta museora etortzen naiz. Hemen egoten naiz, goiz eta arratsalde, laborategiko lana egiten: fitzak eguneratzen, piezak garbitzen eta kontserbatzen... Niretzat egun osoko lana da. Ohean nagoenean ere museo kontuei bueltak ematen ibiltzen naiz sarritan.

"MUSEOAK ZABALDU BARIK JARRAITUKO ZUEN BESOAK GURUTZATUTA GERATU IZAN BAGINA"

Enrike, esadazu Indiana Jonesen antzera ibilitakoa zarela.

E.H.: (Barrez) Asko esatea da, baina badaia batzuk egin ditugu, bai. Batez ere, Mediterraneo inguruan ibili gara. Arrantzaleen lagun egin eta askotan ibili nintzen euren itsasontzietan. Orduko lagunak ditut oraindino. Hain zuzen ere, barku bateko patroia hemen izan zen joan zen astean, bisitan. Gero, toki askotan ibili naiz: Europan, Hego Amerikan, Erdialdeko Amerikan...

Bildumako pieza asko donazioak dira. Zeintzuk izan dira esanguratsuenak?

E.H.: Donaziorik inportanteenetariko bat anonimoa izan zen. Oraindino ez dakit nor den. Susmoa dut, museoa aurreko eraikinean zegoenean, hura bisitatu eta txundituta geratu zen pertsona bat dela. 1990. urte inguruan zen. Handik hile batzuetara heldu zen donazioa; lau-bost kaxa, Hego Amerikako askotariko aleekin: hegaztiak, tximinoak... 200 edo 300 bat pieza. Ikaragarria! Beste donazio batzuk ikastetxe erlijiosoetatik etorri dira, misiolari lanetan baturikoak. Lehenengo Jesuitak ikastetxeak izan zen. Beste behin, Filipinetako pertsona bat handik hona etorri zen 25 kilo karakol ematera. Sarrera ondoan dagoen karramarro erraldoia japoniar baten donazioa da.

Museoarentzat kokaleku handiago eta zentralago baten desioa aipatu duzue sarritan. Esperantzak bizirik jarraitzen du?

E.H.: Durangoko Udalari 35 urte nituela proposatu nion lehenengo museoaren ideia, eta gaur egun 76 ditut. Azken batean, Durango erdi-erdian dago. Museo honetan aberastasun ikaragarria dago. Inork ez duela estimatzen? Nik ezin dut beste ezer egin, proposatu baino ez.

L.H.: Guk borrokan jarraitzen dugu, aldiro ateak jotzen, ahaztu ez dadin. Museoa zabalduta, ametsa egia bilakatzea lortu genuen, baina hau ez da Durango. Garraio aldetik duen komunikazioa, han dabilen jende emaria... Eta espazio faltaren kontua ere aipatzekoa da.

Enrike, zure legatuak kezkatu egiten zaitu?

E.H.: Gazteek jarraituko dute, horrek ez nau arduratzen. Baina ni bizi naizela museo Durangon ez ikusteak... Horrek ematen dit bihotzean mina.



Enrike Huerta Hontza Museoko monitore izandakoekin.



Enrike Huerta, bere emazteagaz eta lagunekin, EHUKo Vega Asensiok Huertari egindako marrazkia esku artean dutela.



Durangoko Museoko, Gerediaga Elkarteko eta Angurreta guneko ordezkariak.



Aldundiko, Jaurilaritzako eta Durangoko Udaleko ordezkariak eta Miguel Zugaza, urteurren ekitaldian.



Enrike eta Leire Huerta, ekitaldian.



Mañariko Udaleko, Durangoko Udaleko eta Mankomunitateko ordezkariak.



Huerta, erregalatutako koadroagaz.

ZALDIBAR

XXV NEGUKO AZOKA
Azaroak 24
 10:00 erpaimahaiaren erabakia
 11:00 azokaren hasiera

Zaldibar
 Elizateko Udala

"Elebidun izateak zahartzaroan eraginik ote duen jakin gura dugu"

MIREN ARANTZETA PEREZ HIZKUNTZEN ZIENTZIA KOGNITIBOETAN DOKTOREA EHuko Gogo Elebiduna taldeak ikerketa bat hasi du euskaraz berba egiteak eta hizkuntza bat baino gehiago jakiteak zahartzaroan eraginik ote duen jakiteko

Ekaitz Herrera DURANGO

Miren Arantzeta (Zaldibar, 1982) Hizkuntzen Zientzia Kognitiboetan doktoratu zen, Herbehereetan; gaur egun Ramon y Cajal institutuko ikerlaria da EHUn. Honako hau da Arantzetaren eta Gogo Elebiduna taldearen ikerketa: zahartzaroan hizkuntza gaitasunak aurkezten dituen aldaketak, eta euskararen erabilera eta elebitasunak aldatzea horietan zelan eragiten duten aztertzea. Erantzunak bilatze aldera, Arantzeta In-txaurrundoko Oktogonoan dabil ikerketaren adarretako bat garatzen. 60 urtetik gorako herri-tar euskaldunak aztertzen dabil eta ikerketan parte hartzera deitu ditu profil horretako herri-tarrak.

Zeintzuk ezaugarri ditu ikerlanak? Gure ikerketa eremua elebitasuna da, eta nire ikerketa lerro nagusia zahartzaroa eta hizkuntza eragozpenak dira. Adibidez, iktusaren ondorioz aurkezten diren afasiak. Izan ere, zahartzaroak eta hizkuntza eragozpenek loturarik bako kontzeptu bi diruditen arren, hartu-eman estua dute elkarrengatik. Gaitz neurologikoaren ondorengo hizkuntza eragozpenak, afasiak, edozein adinetan agertu daitezkeen arren, oro har, pertsona nagusietan aztertzen ditugu. Aldiz, gutxi dakigu adin horietako pertsona osasuntsuen hizkuntza gaitasunaren inguruan. Ezinbestean ikertu behar dugu bizi-zikloan, zahartze osasuntsuaren barruan, "normala" dena, kondizio patologikoak behar den moduan detektatu, ulertu eta tratatzeko.

Beraz, irizpide kliniko bat ezartzea da asmoa?

Ezagutza zientifikoa sortzea erabilgarria da, patroia normalak ez-normaletatik desberdintzeko.



Miren Arantzeta Durangoko Oktogonoan dabil ikerketarako lagina hartzen.

Ume txikiekin oso erraz irudikatzen da egoera. Hara: adin bereko ume talde batean, ikasgela batean, berehala ikusten duzu zein umek duen hizkuntza gaitasuna garatuago, zeinek duen gutxiago. Hau da, zuk badakizu zer hizkuntza gaitasun espero dezakezun lau urteko ume batengandik, hizkuntza jabekuntzaren etapak ezagutzen ditugulako. Baina zahartzaroan ez daukagu eragozpenen bat daukatenean eta eragozpenik ez daukatenean arteko aldea non dagoen ezartzeko irizpide argirik. Hizkuntzaren gainbehera osasuntsua ezinbestean ezagutu behar dugu egon daitezkeen patologiak behar den moduan ulertu ahal izateko, eta era goiztiarrean esku hartzeko.

Eta zein rol du elebitasunak joko zela horretan?

Gure ikerketa arrazoiatariko bat hizkuntzaren gainbehera osasuntsuak euskararen duen eragina ikertzea da. Beste arrazoi bat elebidun izateak zahartzaroan eraginik ote duen aztertzea da. Gure ikerketan eta nazioarteko ikerketan arabera,

badirudi elebiduna izateak onura kognitibo batzuk ekartzen dizkigula zahartzaroan. Baditugu oinarriak hori pentsatzeko, baina zehaztasuna falta zaigu behin betiko ondorioa emateko, eztabaida handia dago eta alor horretan. Eta zer egon daitezkeen zehaztasun falta horren atzean? Ba, elebitasunak forma asko izan ditzakeela. Hau da, baten batek, beharbada, nagusitan ikasi du bigarren hizkuntza. Beste batek, akaso, umetatik dakizki biak, baina apenas erabiltzen du euren arteko bat. Eta kasuistika hain denez zabala, ez dago ondorio sendorik. Horrenbestez, gure ikerketan askotariko euskaldunak aztertzen ditugu, euskararen jabetasuna, adina, konpetentzia eta erabilera askotarikoak dituzten euskaldunak.

Zer da Durangoko saioetan zehatz-mehatz aztertzen zabilatzatena?

Elebitasunaren onurak barik, elebitasunaren eragina aztertzea da helburua. Gure hizkuntza gaitasunak urteak egin ahala erakusten dituen aldaketak aztertzea gura ditugu desberdinak

diren elebakarren eta elebidunen artean. Hainbat lagin aztertzen gabiltza horretarako. Pertsona osasuntsu gazte eta nagusien datuak EHuko Gasteizko Campusean eta Durangon jasotzen gabiltza. Horrez gainera, Bizkaiko nagusien egoitzetan egiten gabiltza ikerketa, eta baita Donostiako Ospitalean ere, iktusaren ondoren gainbehera kognitibo leuna aurkezten duten pertsonekin, azken honetan.

Zelakoak izaten dira Durangoko probak?

Parte hartzaile bakoitza lau bider dator hona. Saio bakoitza ordubetekoak izaten da. Lehenengoan, proba kognitiboak egiten ditugu. Memoria, bizkortasuna eta halakoak aztertzen ditugu. Bigarrenean, elkarrizketa bat egiten dugu. Ez da kontu pertsonalik kontatu behar. Askotariko zereginak ematen dizkiegu, hainbat gairen inguruan berba egiteko. Hirugarren eta laugarren saioetan pantaila baten aurrean egiten ditugu ariketak. Zeregin errazak dira: esaldia entzun eta galdera batzuei erantzun, irudiak izendatu, eta abar. Erreakzio denborak eta begien mugimendua aztertzen ditugu, besteak beste.

Ikerketak zer onura ekarriko dio gizarteari?

Erronka handia dugu zahartzarogaz, eta horrek dakarren erronketariko bat gizarte horretara egokitzea da. Beste erronka bat herritarrei ahalik eta bizi kalitaterik onena ematea da ahal den beste denboran, eta azkena, zahartzaroak dakartzen gaixotasun mentalei aurre hartzea. Hau guzti hau ez da Euskal Herriko kasua bakarrik, baina bertara egokitu behar dugu ikerketa. Izan ere, zahartzaroak eta hizkuntza eragozpenek euren manifestazio propioak dituzte euskal hiztunen gain. Durangora bueltatuta, herri-tarrak ikerketan parte hartzera gonbidatu gura ditugu. Ez da gutxieneko hezkuntza mailarik behar, ezta bestelako ezagutzarik ere. 20 euroko ordainsaria jasoko dute. Eginbeharrekoak oso errazak dira, eta zientziari ekarpena egingo diote.



Ikerketan parte hartzeko

Gobernu taldeak "merkatuko proiektua baztertzea" kritikatu du Herriaren Eskubideak

E.H. DURANGO

Baserritarren merkaturako gunea, kultur ikuskizunetarako anfiteatroa, ostalaritza lokala eta ikastaroak egiteko aretoa. Aurreko legegintzaldiko gobernu taldea elementu horiekin osaturiko merkatu plaza garatzen hasi zen 2022an, eta urte hartako azaroan aurkeztu zuten elkarteekin, baserritarrekin eta hornidura merkatuko kideekin ondutako planteamendua. Horrez gainera, 2023ko aurrekontuetan 265.000 euroko diru atala gorde zuten proiektua idazteko. Alabaina, egungo gobernu taldeak "baztertu egin du" proiektua, Herriaren Eskubideak jakinarazi duenez: "Gobernu taldeak behin betiko abandonatu du 2022ko azaroan aurkezturiko Merkatu Plazarako proiektua", azaldu dute. Hori guzti hori dela eta, merkataria eta baserritarrak "abandonatzea" egotzi diete EAJri eta PSE-EEri.

Otamotzena Auzogunearen urteurrena zapatuan

E.H. DURANGO

Durangoko Otamotzena Auzoguneako kideak prest daude ospakizun pastelari lehenengo kandela ipintzeko. Gizarte etxeak bere lehenengo urteurrena ospatuko du zapatu honetan, azaroak 23, musikagaz, umeentzako ekintzeekin eta azokekin bateriko egitarau batzuekin. Ekintzak 11:00etan hasiko dituzte, umeentzako talo tailerragaz, ludotekagaz, bigarren eskuko azokagaz eta artisautza azokagaz. 16:00etan binilo diskoak ipiniko dituzte, eta 19:00etan Havana 537 taldearen emanaldia izango da. Elkarteko kideek adierazi dute auzoguneak "arrakasta handia" izan duela urtean zehar: "Herri-tarren parte hartzea, ikaskuntza eta kultura bultzatu ditugu, eta bakardadearen aurka ere borrokatu gara, horixe delako gizartearen erronkarik handienetarikoa bat". Proiektua babestera deitu dituzte auzotarrak.



Udal ordezkariak eta arduradun kulturalak joan zen astean egindako agerraldia.

Plateruena 2025eko bigarren seihilekoan zabaltzea gura dute

Durango Udalak milioi bat euro inguruko inbertsioa egingo du azpiegiturak eta ekipamendua berrizteko

Aritz Maldonado DURANGO

Durango Udalak pauso berriak iragarri ditu Plateruena musikaren "sorkuntza, prestakuntza eta erakustaldi zentro" bihurtzeari begira. 2025ean zehar milioi bat euroko inbertsioa egingo dute azpiegitura kulturala egokitu eta haren ekipamendua berrizteko. Besteak beste, agertokia berrizteko dute, tabernako barra berri bat egingo dute, zoladura eta argiztapena berriztuko dituzte, eta goiko solairuetako gelak zein sotoko eremuak berrantolatuko dituzte.

Kultur eremua datorren urteko bigarren seihilekoan zehar zabaltzea gura dute. Horrez gainera, udalak ehun jarduera baino gehiago eta 400 prestakuntza ordu baino gehiago eskaintzeko erronka ezarri du, baita tokiko eta nazioarteko musika taldeen jaialdiak antolatzea ere. "Taldeen %50ek

gutxienez euskaraz abestuko dute, artisten %33 35 urtetik beherakoak izango dira, eta emakumeen ordezkartza ere gutxienez %33ra helduko da", azaldu zuen Mireia Elkoroiribe alkateak joan zen asteko prentsaurrekoan. Azkenik, ikerketa eta garapen artistikorako beka bat kaleratuko dute, urte birik behin. Paule Sanchez zinegotziak Plateruena "ideien faktoria" izan beharko lukeela iritzi dio: "Plateruena Durangoren isla izatea gura dugu, hau da, herritarrekin batera pentsaturiko eta sorturiko espazio bat".

Durango EH Bilduren ustez, "lehentasuneko" da Plateruena berrir zabaltzea, "azken urte eta erdian kulturak birika bakarraz arnasa hartu duelako". Era berean, proiektu berriak euskararen eta herriko elkarten paper protagonista bermatu beharko lukeela iritzi diote.

Emendakinak 2025eko aurrekontu proposamenari

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango EH Bilduren iritziz, "2025eko aurrekontuak inoizko handienak izango diren arren" gobernu taldeak aurkezturiko aurrekontu proposamenak "ez die Durangok dituen erronka nagusiei erantzuten". Zirriborroan etxebizitzari buruzkoak ez direla aipatzen esan dute, eta ingurumen bideratutako diru

partida "%14" jaitea aurrekusi dela kritikatu. Era berean, proposamenen artean "zaintza sistema publiko eta duina lantzeko proiekturik edo programarik ez" dagoela adierazi dute. Horren aurrean, emendakinak aurkeztu dituzte "akordio zabala" lortzeko helburuz. Horien artean, belnaldien arteko etxebizitza proiektua aztertzea (20.000 euro), energia komunitatea sortzea (100.000 euro) eta zaintza diagnostikoaren ekintza plana garatzea (40.000 euro) daude.

Kirolene ikastetxearen egoitza berria ez dute Tabiran egingo

Horren ordez, Kirol Gune Integratua egingo dute. Azpiegiturak aldagela berriak eta taberna izango ditu

Joseba Derteano DURANGO

Kirolene kirol irakaskuntzen ikastetxe publikoaren egoitza berria ez dute Tabiran egingo, eta, horren ordez, Kirol Gune Integratua sortuko dute bertan. "Ez dago espazio nahikorik".

Horixe da Kirolene Tabiran ez kokatzeko arrazoia, Iker Txertudi Durango Kirolakeko presidentearen esanetan. Edozelan ere, Kirolene ziurtatu du Durangon jarraituko duela. Dena dela, udalak kirolgune zabal bat

integratzeko proiektua bultzatuko du Tabiran, gaur egungo futbol zelaia eta igerilekuak batuko dituena. Espazio horrek aldagela berriak eta taberna-kafetegia ere izango ditu, eta baita zerbitzu osagarriak ere.

Orain, udaleko talde teknikoak proiektua idazten hasiko da. 2025eko lehenengo hiletan garatzea gura dute proiektua, eta bigarren seihilekoan lanak hasita. Aldagelak eta Kirol Gune Integratua 2026ko udarako martxan egotea gura dute.

2024 ostera
KULTUR FESTIBALA

BALMASEDA
ARRIGORRIAGA
ABADIÑO

Abadiño
AZAROAK 28 · 18.30 · TXANPORTA KULTUR ETXEA
SOLASALDIA (DOAN)
Kulturgintza bihar:
Nola sustatu kultur-zaletasuna?

AZAROAK 29 · 20.00 · MATIENAKO FRONTOIA
IKUSKIZUNA (DOAN)
HARROBI DANTZA
BERTIKALA: GEURE(R)A

AZAROAK 30 · 20.00 · PROBALEKUA
KONTZERTUA (DOAN)
NØGEN

ABENDUAK 1 · 12.00 · ERROTA KULTUR ETXEA
HAUR ETA FAMILIENTZAKO
IKUSKIZUNA (DOAN)
IRATXOAK ETA
BASOKO SORGINKERIA

Antolatzailea: euskaltzateen topagunea
Babesleak: Bizkaia
Laguntzaileak: Abadiño

Info +:



25. urteurreneko galako argazkia. BORJA MEDELA

"De Norte a Sur eta Alicia askatasunerako atea dira"

Aurten 25 urte dira Alicia Gallardok Abadiñon De Norte a Sur taldea sortu zuela. Lagun batek bultzatuta hasi zen dantzak irakasten, eta gaur egun 200 lagunetik gora daude taldean. "Kultura egiten dugu eta horretan jarraituko dugu", esan du Gallardok

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

De Norte a Sur dantza taldeak izen-abizenak baditu, Alicia Gallardo dira horiek. Lagun batek bultzatuta, orain 25 urte De Norte a Sur taldea sortu zuen Abadiñon, eta harrezkero sevillan irakasten dabil. "Nigaz lan egiten zuen lagun batek sevillan ikasi gura zituela esan zidan, taldetxo bat dantzak ikasteko irrikan zegoela, eta mesedez eurei irakasteko. Horrela hasi nintzen. Bost bat lagunegaz hasi, eta astetik atera taldea izugarri hasi zen; hirugarren hilabeterako, 50 lagun baino gehiago ginen taldean. Erokeria bat izan zen, eta nire ametsik onenean ere ez nuen hau guzti hau espe-

ro", argitu du Gallardok. Gaur egun, De Norte a Sur taldeak 155 dantzari ditu eta 200 lagunek baino gehiagok osatzen dute.

Hasiera "gogorra"

De Norte a Sur dantza taldeko kideen berbetan, hasierako urteak "oso gogorrak" izan ziren. "Jendeak ez zuen ulertzen Abadiñon flamenkoa eta sevillan dantzatzeko zituen talde bat egotea. Lokal bat lortzea asko kostatu zitzaigun, eta hasierako urteetan izugarri borrokatu behar izan genuen lokal hori izateko", nabarmendu du Gallardok. Hala ere, gaur egun Abadiñon taldea errotuta dago eta erreferentziatzeko talde bihurtu da herrian.

"Aurka-aurka jendea taldea onartzen joan zen, errespetuz hartu gintuzten eta gaur egun herrian estimuan gaituztela esango nuke", nabarmendu du Gallardok.

Herrira begira hasierako urteak "zailak" izan ziren arren, sorreratik bertatik familia giroa izan da nagusi taldean. "Ni neu hasieratik nago taldean. Lana dela eta, urte batzuetan utzi egin behar izan nuen, baina inoiz ere ez naiz taldetik guztiz aldentu", adierazi du Juani Perez taldeko kideak. "Hasierako urte haiek oso bereziak izan ziren niretzat. De Norte a Sur taldeari eta Aliciari eskerrak herriko emakume askok, gure

familiak etxean utzi, eta bidaia-tzen hasi ginen. De Norte a Sur arnagune bat izan zen askorentzat, eta arnagunea da gaur egun", gaineratu du Perezek.

Taldeak orain 23 urte egin zuen lehenengo bidaia. Kordobara (Espainia) joan ziren dantzatzera, eta harrezkero Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako hainbat herritan izan dira.

Esker oneko berbak

De Norte a Sur taldeko dantzariak zeozertan ados badaude, taldearen motorra eta arima Alicia dela da. "Niretzat De Norte a Sur eta Alicia askatasunerako atea dira. Aliciak argi berezi bat du eta hori guztioi transmititzen digu. Taldea egiten du, familia handi bat sortu du", gaineratu du Perezek.

Jokin Marinek ere esker oneko berbak baino ez ditu taldeko zuzendariarentzat. Marin 11 urte gaz hasi zen sevillan dantzatzeko aukera izan zuen, eta harrezkero bere eskutik doala esan du. "Aliciak niri, beste askori legez, aukera itzela eman zidan eta oso eskertuta nago. Beti diot Alicia nire bigarren ama dela, eta bere familia neurea balitz lez sentitzen dudala. De Norte a Sur taldeko motorra Alicia da eta berak batzen gaitu denok. Alicia ez dagoen momentuan, guk kontaktua mantentzen jarraituko dugu, baina beragaz batera erretiratuko gara", esan du Marinek.

Gallardok etorkizun handia ikusten dio taldeari. "Harrobia indartsu dator eta hori garrantzitsua da. Guk kultura egiten dugu, eta kultura egiten jarraituko dugu", esan du.

Moldaketak Arrankurriko egoitzako irisgarritasuna bermatzeko

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak moldaketa garrantzitsuak egin ditu Arrankurriko egoitzaren erakikiko duten egoitzari begira. Egoitza mendekotasuna duten adineko pertsonentzat da. Udaletik jakinarazi dutenez, Zelaieta auzoan aurreikusitako kokalekuak zailtasun handiak ditu irisgarritasunari dagokionez. Gainera, udaletik esan dute Aldundiagaz landuriko proiektuan ez dela aparkalekurik aurreikusten. Hori aztertuta, udalak ondorioztatu du arau subsidiarioak moldatzea "beharrezkoa" dela bidearen malda leundu eta egoitzaren inguruan aparkaleku bat egin ahal izateko.

Azaroaren 23an, zapatua, Santa Zezilia kontzertua Mallabian

M.Z. MALLABIA

Mendibil abesbatzak antolatuta, eta Mallabiko Udalaren laguntzagaz, Done Zezili kontzertua egingo dute bihar, zapatuak 23, Mallabiko elizan.

Kontzertua 19:00etan hasiko da eta Mallabiko Mendibil abesbatzak, Ozaetako Kataliturri abesbatzak eta Mallabiko trikitixa eskolako kideek parte hartuko dute bertan.

Ondoren, Gaztañerre

Done Zezili kontzertua ez da zapaturako antolatu duten ekitaldi bakarra. Kontzertuaren ondoren, Gaztañerre egingo dute.

Neguko Azokak 27 ekoizle batuko ditu

Domekan Zaldibarko Neguko Azokaren 25. edizioa egingo dute. Postuetan ogia, ezti, ortuariak, fruta, gazta eta gildak ipiniko dituzte salgai. Harrobi konpainiak dantza bertikalagaz landuriko ikuskizuna egingo du barikuan: *Geure(r)a*

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibar neguko ospakizunetan murgilduko da datozen aste-buru bietan, San Andres jaietan. Udalak eta herriko elkarteek dena prest dute aurtengoak ere herritar guztien gozamenerako jaiak izan daitezten. Ekitaldiak bariku honetan bertan hasiko dira, Harrobi konpainiaren *Geure(r)a* dantza bertikalako ikuskizunagaz. Ekitaldia ikusgarria izango da, dantzariak Olazar pilotalekuko hormetatik eskegiko dira-eta musika, irudi-proiektzioak eta dantza batzen dituen emanaldia egiteko.

Bestalde, domekan, aspalditik errotutako Neguko Nekazaritza

Azoka egingo dute. Aurtengoak feriarenean 25. urteurrena izango da. Edizio honetan, 27 baserritar ekoizleek parte hartuko dute: 8 okinek, 5 gaztagilek, 5 eztagilek, ortuariak ekoizten dituzten 4 ekoizleek, pateak egiten duten 2 kidek, eta frutak eta gildak lantzen dituzten ekoizleek. Aipaturiko guztiez gainera, hemeretzi artisau herriko kaleetan egongo dira euren lanak herritarrei erakusten eta saltzen.

Dantza, erdigunean

Lehen aipaturiko *Geure(r)a* ikuskizunaz gainera, neguko jaiak dantzaz gozatzeko ekital-

di gehiago ere izango dute egitarauaren barruan. Azaroaren 29an, barikua, Zaldibarko dantzarien taldeak txupinazoa jaurtiko du udaletxeko balkoitik. Hitzordua 19:00etan izango da, udaletxeko plazan.

Perurena eta Mulixka

Abenduaren 1ean, *Harria* ikuskizunaz gozatzeko txanda izango da. Iñaki Perurena harrija-sotzaile nafarra eta Mulixka dantza konpainia arabarra Zaldibarko Olazar pilotalekuan izango dira, 18:30ean, dantza, narrazioa eta zuzeneko musika tartekatzen dituen ikuskizuna egiten.

Merkatarien lehenengo kanpaina, azken txanpan

E.H. ZALDIBAR

Domeka honetan amaituko da Zaldibarren Bertan merkatarien elkarteko kideen kanpaina. 50, 100 eta 150 euroko deskontu txartelak zozkatuko dituzte erosketak elkartearen parte diren denda eta tabernetan egiten dituzten herritarren artean. Kanpaina azaroaren 11n hasi zuten eta domeka honetara arte egongo da indarrean, azaroaren 24ra arte. Erosleek izena eta telefono zenbakia idatzi behar dituzte erosketaren tiketaren atzealdean, eta komertzio hautetsontzian utzi. Azkenik, aipaturiko hiru deskontu txartelen zozketa azaroaren 25ean egingo dute. Sariak merkatarien elkarteko establezimenduetan trukatu ahal izango dira.

Zaldibarko merkatarien elkarteak herriko salerosketak sustatzeko helburuz egiten duen lehenengo kanpaina da hau. Herriko bezeroak fidelizatzea eta tokiko zerbitzuak bultzatzea dute helburu.



Olentzero eta Mari Domingi, iaz, Garain.

Entseguak gabon kantak lantzeko

E.H. GARAI

Garaiko nagusiek Kantu Lagun egitasmoaren saio berezi bat egingo dute abenduan, gabonen bueltan. Oraingoz ez dute emanaldiaren data finkatu, baina entseguak, bai, hasita daude. Musika zuzendari baten laguntzagaz, entsegu saio bat egingo dute gaur, azaroak 22, eta datorren barikuan beste bat egingo dute. 19:00etan izango dira biak.

ZALDIBARKO SAN ANDRES JAIK 2024

AZAROAK 22, barikua

20:00 *Geure(r)a* dantza bertikalako ikuskizuna Olazar pilotalekuan.

AZAROAK 23, zapatua

17:00-20:00 Ate irekien jardunaldia rotodromoan.

AZAROAK 24, domeka

11:00 Zaldibarko XXV. Neguko Nekazari Azoka.

AZAROAK 29, barikua

18:30-20:30 XXXI. argazki lehiaketako erakusketa udaletxeko pleno aretoan.

19:00 Jaien hasiera iragartzeko txaplogua jaurtiko du Zaldibarko dantzarien taldeak.

19:30-21:30 Zaldibarko Arku Taldearen ate irekien jardunaldia, Olazarren.

19:30 Pintxo solidarioak eta DJ Josemari Olazarren, Helmutag antolatuta. Batutako dirua Danobat emakume zentroarentzat izango da.

AZAROAK 30, zapatua

12:00-14:00 eta 18:30-20:30 XXXI. argazki lehiaketako erakusketa udaletxeko pleno aretoan.

13:00 Zaldibarko Koral Elkarteko abesbatzak elizan abestuko du jubilatuen omenez Koralarren 79. Urtea gogoan hartuta.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

18:00-20:00 Dantzaletzeko Prest! Haurrentzako disko festa udaletxeko plazan. Eurria bada, eskolako aterpean.

18:30 Pilota partidak Olazar pilotalekuan.

ABENDUAK 1, domeka

12:00-14:00 XXXI. argazki lehiaketako erakusketa udaletxeko pleno aretoan.

16:30-19:30 JOKAI, Euskal mitologian oinarritutako jolasak eskolako hirordegian.



Zaldibar
Elizateko
Udala



ETS trenbide pasagune bi kentzen dabil Zornotzan

Bernabeitia eta Euba auzoetako trenbide pasaguneak kentzeko lanak bisitatu dituzte hainbat agintaririk; Euskal Trenbide Sareak 9 milioi euro inbertitu ditu pasabide horiek kentzeko eta inguruak egokitzeko eta konpontzeko

A. M. ZORNOTZA

Azken bost urteetan, Mugikortasun Jasangarriaren Sailak 518 milioi euro inbertitu ditu euskal trenbide sarea hobetzen eta luzatzen. Horietariko bederatzita milioi Zornotzan inbertitu ditu, trenbide pasagune bi kentzeko, Bernabeitiakoa eta Eubakoa, hain zuzen ere. Susana Garcia Chueca Mugikortasun Jasangarriaren sailburua, Loly de Juan Garraio Azpiegituren zuzendaria eta Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak bertako lanak bisitatu zituzten. Euban, adibidez, igarobide bat ezartzeko lanak egiten dabilta, eta lan horiek urte amaieran amaitzea aurreikusten dute. Igarobide horri eskerrak, Eubako herri-gunetik Bernagoitiara eta landa-bide batera sarbidea ematen duen BI-4338 errepidera igaro ahal izango da.

ETS trafiko intentsitate handia duten trenbide pasaguneak kentzen dabil azken urteetan.



Loly de Juan, Susana Garcia Chueca eta Ainhoa Salterain.

Hain zuzen ere, 2019-2024. urteen bitartean hamalau trenbide pasagune kendu dituzte, horietariko hamar Bizkaian. "Helburua irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea da, biak ere funtsezkoak gure hiri eta he-

rrietan trenagaz bizi gaitzen gure egunerokoan. Lanera, ikastera eta zaintzagaz zerikua duten oinarritzko zereginak betetzera joateko haren aldeko apustu egitea dugu helburu", azpimarratu du Garciak.



Iñaki Irasizabal.

'Otsoa etorriko da' irakurriko dute Euskararen Egunean

Azaroaren 24ra arte eman daiteke izena Zelaietako Auditoriumean egingo den irakurraldian parte hartzeko

A. M. ZORNOTZA

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Iñaki Irasizabal idazle zornotzarren *Otsoa etorriko da* liburuaren irakurraldia egingo dute Zornotzan. Zelaietako Auditoriumean izango da, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Ekimena egin ahal izateko, 85 lagunek parte hartu beharko dute gutxienez. Irakurraldian parte hartu gura dutenek azaroaren 24a baino lehenago eman beharko dute izena, euskara@amorebieta.eus helbidera idatzita. Irasizabalek iaz kaleratu zuen

Otsoa etorriko da. Bere aurreko lan esanguratsuenetarikoak lez, lan honek ere thriller beltzaren kutsua du; besteak beste, idazle zornotzarrak *Burua txoriz betetik*, *Mendaroko txokolatea*, *Igelak benetan hiltzen dira* eta *Odolaren deia* idatzi ditu aurretik.

Izen ematea

Bestalde, Zornotzako Udalak beste ohar baten bitartez jakinarazi du zabalik dagoela Larrea kiroldegiko 2025eko lehen hiruhileko ikastaroetarako izen ematea. Azaroaren 28ra arte dago izena emateko aukera.

Elorriarrak Aldatsekua eta frontoia egokitzearen alde

Aurrekontu parte hartzaileetan Aldatsekuako inguruak egokitzeko proposamenak lortu du botorik gehien



Aldatseku.

A. M. ELORRIO

2025eko aurrekontu parte hartzaileetan proposaturiko proiektuen artean, Aldatsekuako inguruak egokitzeko proposamenak jaso du botorik gehien. Datorren urteko aurrekontutik, Elorrioko Udalak 50.000 euro erabiliko ditu proiektu honetarako. Elorrioko Udalak ohar baten bitartez jakinarazi duenaren arabera, 59 elorriarrek parte hartu dute galdeketa. Proiektu irabazleak botoen %29 jaso ditu. Bigarren proposamenik bozkatuena Ibarako espaloiak konpontzea izan da, hirugarrena San Joseko txintxaunak berritzea eta eremua atontzea, eta laugarrena musika eskolaren eraikinean hobekuntzak egitea. Esteibarlandan komun publikoak ipintzea eta Elizaldeko azpiegiturak hobetzea izan dira hurrengo bozkatuenak.

Gabonetako zozketarako kanpaina hasi dute Berrizen

Atxikitako establezimenduetan egindako erosketengaitik txartel zenbakitua banatuko da abenduaren 12ra arte

A. M. BERRIZ

Azken urteetan egin duten legez, EME Berrizko Merkatarik Elkarrekin gabonetako zozketa antolatu du. Abenduaren 12ra arte (txartelak lehenago amaitzen ez badira), kanpainara atxikitako establezimenduetan egindako erosketengaitik erosleei txartel zenbakitu bana banatuko zaie zozketan parte hartzeko. Zozketaren irabazlea abenduaren 14an egingo den gabon jaiaren jakinaraziko dute; jai Olakueta plazan egingo dute. Bederatzita sari banatuko dituzte; horietariko bost

erosketa txartelak izango dira. Guztira, 1.600 euro banatuko dituzte erosketa txartelak. Bestalde, Berrizko establezimenduetako produktuekin osaturiko lau otzara ere banatuko dituzte. EMEk azaldukoaren arabera, guztira hogeita zerbaki aterako dituzte tonbolan; lehenengo bederatzita saridunak izango dira, eta gainerakoak erreserbakoak.

Berrizko Merkatarik Elkarrekin ohar berean azaldu du erosketa txartelak 2024ko abenduaren 31 baino lehenago trukatu behar direla.



Pedro Miguel Etxenike zientzialaria Jone Guenetxea kazetariaren galderei erantzuten. EHU

"Nire ikasle izandakoak irakasle bihurtzea bizitzako poztasunik handienetariko bat da"

PEDRO MIGUEL ETXENIKE LANDIRIBAR ZIENTZIALARIA

Etxean zein nazioartean errekonozimendurik gehien jasotako euskal zientzialaria da Etxenike. EHUko Materia Kondentsatuaren Fisikako katedradun emeritua eta DIPCko presidentea da

Jone Guenetxea DURANGO

Argia, umoretsua eta jakituria handikoa. Horrelakoa da Pedro Miguel Etxenike (Izaba, Nafarroa, 1950) bertatik bertara. Izabako zientzialariaren *El secreto de la naturaleza* dokumentala proiektatu zuten joan zen barikuan Durangoko San Agustin Kultur Gunean, protagonista bera ekitaldian zela. EHUko Kultura Zientzifikoko Katedrak eta K2000k ekoitzi-riko ikus-entzunezkoan, Etxenikeren gogoetak eta bere bizitzako hainbat pasarte jasotzen dira. Dokumentalaren ondorengo solasaldian, zientzialariak Jone Guenetxea ANBOTOk zuzendariak egindako galderei erantzun zien.

Bereziki eskertzen dizugu Durangora egindako bisita, urrunetik zator eta. Japoniatik bueltatu berri zara. Zelako bidaia izan da?

Oso bidaia polita izan da. Japonia bisitatzen dudun seigarren aldia izan da eta Japoniak bere balioei eusten die: bere garbitasunari, ordenari... Atzo (azaroak 13) tren hartu genuen Kyoton, eta minutu bat atzeratu zelako barkamena eskatu ziguten. Garbitasuna ere nabarmena da, teknologiaz lagunduta. Oso gustura egon gara. Hala ere, beti esaten dudun legez, "herrialde guztietan daude toki onak, baina bihotzak dio zoaz Euskal Herrira".

Zerk eraman zaitu Japoniara?

John Pendryk, orain 51 urte nire

doktoretza tesiaren arduraduna izan zenak, oso sari garrantzitsua jaso zuen Kyoton, eta gonbidatu egin ninduen. Iruditu zitzaidan omenaldi horretan egon behar nuela, bidaia luzea izan arren. Leialtasunagaitik joan nintzen. Askok estimatzen dudun balioa da, japoniarrek badutena eta euskaldunok izaten jarraitzea espero dudana.

Cambridgeko Unibertsitatean ikasi zenuen, eta dokumentalean azaltzen duzu zeinen sarrera proba bitxia egin zizuten gaztetan. Zelakoa zen unibertsitate bizitza hura?

Agian sasoi hura apur bat idealizatuta izan dezaket. Cambridgeko ikaslea izan nintzen, eta katedraduna ere bai gero, Eus-

ko Jaurlaritzatik pasatu eta gero. Bizitza zoragarria zen. Hainbeste aukera zegoen...! Dena zen librea. Klaseak libreak ziren doktoretzetan. Beka on bat eman zidaten eta gai mordo aukeratu ahal izan nuen. Geroago ez dut horien inguruan lan egin, baina oinarri bat eman didate. Kirola ere asko gustatzen zitzaidan, eta lagunak, College-tako jendea... Oso zoriontsua izan nintzen han.

Dokumentalean diozu ikaslearen interesa eta pasioa piztea dela irakaslearen lana. Ikasle lez izan duzun ibilbidean, zein irakasle eta pertonek markatu zaituzte?

Pertsona asko dira eta kostatu egiten da zerrenda bat egitea inor kanpoan utzi barik. Herrian, nire ama, andereñoa izanda, asko tematu zen memoriaren lanketan. Hezkuntza prozesuetan, orain baztertu egin da memoria, oso modu injustuan. Adibidez, Errege Godoen zerrenda ikasteak ez du ezertarako ere balio. Baina sormena gauza desberdinak lotzea da eta buruan zenbat eta gauza gehiago izan, hobeto. Nik beti landu dut asko memoria. Ama oso adoretzua zen, nekazarien alaba. Era berean, Lekarozeko ikastetxean oso irakasle onak izan nituen, bai zientzietan eta baita letretan ere. Unibertsitatean ere irakasle ezin hobek izan ditut. Cambridgeko, adibidez, Philip Anderson oso pertsona argia zen. Hiru urtean klase berera joan nintzen, bere kontzeptuen sakontasunagaitik.

Jende asko miresten dut, eta, gainera, asko zor diet. Oso esker-tuta nago.

Irakasle legez, dokumentalean diozue zure ikasle izandakoak miresten dituzela. Zu zeu ikasle hobea izan zara irakaslea baino, ala alderantziz?

Ikasle hobea irakaslea baino. Ez dut uste irakasle txarra izan naizenik ere, baina hori ikasleek esan beharko lukete. Baina izan ditudan ikasleak orain irakasle bihurtu dira eta hori nire bizitzako poztasunik handienetariko bat da. Baita instituzioen sorrera eta eskola baten sorrera ere. Horretarako, errezetarik onena jende ona aukeratzea eta haiei lan egiten uztea da.

Inteligentzia artifiziala indartsu sartu da zientziaren munduan. Zein bidetatik eraman gaitzake?

Ez naiz aditua, baina aldaketa sakona etorriko da inteligentzia artifizialak gauzak ezagutzeko modu asko eman ahal badizkigu, giza inteligentziarentzat eskuragarri ez daudenak, hain zuzen ere. Giza inteligentzia ez dago prest dena ulertzeko. Hain zuzen ere, zientzia fede batean oinarritzen da, uler dezakegula sinestean alegia, baina beharbada ezin dugu guztia ulertu. Kualitatiboki diferentek diren ulertzeko moduak eskaintzen badizkigu, inteligentzia artifiziala garrantzitsua izango da.

Aspaldian zientziaren oinarriak zailtzan jartzen ari dira. Mota honetako mugimenduek arduratu egiten zaituzte?

Askok arduratzen naute. COVID sasoiaren, zientzia gizateriaren esperantza izan zen, eta funtzionatu egin zuen. Zenbat milioi pertsona hil ziren XIII-XIV. mendeetan pesteengaitik! Jarrera horien aurrean egin dezakegun bakarra da gizartearen jakintzarenaren errespetua eta kultura zientzifikoa sustatzea. Gizarte bat zientzifikoki kultura bada, demokraziarako berme gehiago izango ditu. Alde horretatik, gai honek sakonean eragiten dit.

Politikagintzan lau urteko ibilbidea egin zenuen. Garaikoebearen sasoiaren, sailburua izan zinen lau urtez. Lehenengo Eusko Jaurlaritzaren sorreran parte hartu zenuen.

Oso errespetatuak sentitzen ginen. Ilusio handia zegoen eta dena zegoen egiteko. Honek zailtasun asko eragiten du, baina abantailak ere bai. Estructura bat sortzea eta sistemak funtzionatzea izan zen gure ardurarik handiena.

anboto
kide



Anbotokideen
txokoa


AZAROKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Errigoraren eskutik Euskal Herriko produktuen otzara.



Hotel Balneario Areatzan gau bat, logela bikoitza, gosaria eta zirkuitu termala bi lagunentzat.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Izurtzako Udalak Santo Tomas ingurua hobetuko du

Izurtzako Udalak hainbat hobekuntza egingo du Santo Tomas parkean. Esaterako, hango mahaiaik berriztu eta jolasgunean tirolina bat ipiniko du. Azken hobekuntza horregaz, herri batzar batean egindako proposamenari erantzungo diote

J.D. IZURTZA

Santo Tomas parkeak bisitari asko jasotzen du urtean zehar, batez ere udaberri eta uda bueltan, eguraldia lagun denean. Familia giroan eta lagunartean goiz edo arratsalde pasa atsegina egiteko aukera eskaintzen du, jan-edanerako mahaiekin eta umeentzako jolasguneagaz. Horrez gainera, herriko jaien barruan bainbat ekintza egiten da bertan, Gertufest jaialdia barne.

Urteetako erabilpenagaz azpiegitura batzuk zaharkituta geratu dira eta Izurtzako Udalak hobekuntza batzuk egitea erabaki du. Esaterako, parkean gaur egun dauden bankuak eta mahaiaik kendu eta berriak ipiniko dituzte. Inguruko belardia ere txukunduko dute. Beste hobekuntza batzuk jolasgunean egingo dituzte. Batetik, harea aldatu egingo dute, eta, bestetik, tirolina bat ipiniko dute. Azken hobekuntza horregaz, herri batzar batean



Jesarleku berriak ipiniko dituzte, esaterako.

egindako eskaerari erantzun gura dio udalak. Azkenik, parkera sartzeko zubiaren azpialdean lan batzuk egingo dituzte, uraren erosioak eragindako kalteak konpontzeko. URA Agentziaren eskakizunak betez egingo dute

hori, ahalik eta irtenbiderik naturalenak baliatuta.

Lanak azaroan edo abenduan hastea aurreikusten dute. Proiektuak 40.300 euroko aurrekontua du eta Bermeosolo enpresak egingo du.

Susana Garciak organo kontzertua emango du Mañarian

J.D. Mañaria

Susana Garcia Lastra pianista asturiarrak organo kontzertua emango du azaroaren 30eko zapatuan, 19:00etan, Mañariko elizan.

Garciak ibilbide luze eta oparoa du musikan. Hainbat ganbera eta orkestra taldetan ibilitakoa da, Espainiako eta Europako musika jaialdi askotan parte hartu du, abeslari entzutsuekin diskoak kaleratu ditu eta telebista nahiz irratientzat kontzertuak grabatu ditu.

Sari bat baino gehiago irabazitakoa da, hala nola Rosa Sabater saria, 2002an. Irakaskuntzari dagokionez, hainbat ikas-tarot eta master zuzendu du.

Erleak, eztiak eta liztor asiarrak berberak Atxondoko saioan

Martitzeneko ekimenean, liztor asiarrak proiektuan parte hartu dutenek informazioa partekatuko dute

J.D. ATXONDO

Urkiola Landa Garapenerako elkarteak eta Atxondoko Erlete Eztiola Elkarteak jardunaldi bat antolatu dute azaroaren 26ko martitzenerako. 18:00etan izango da, elkarteak Axpen duen instalazioan.

Jardunaldi horretan, liztor asiarrak proiektuan parte hartzen duten herritarrek euren informazioa partekatuko dute. Horrez gainera, honako gai hauek jorratuko dituzte: liztor asiarraren aurka aurtengo egindako kanpainen emaitzak, aurtengo uztaren

datuak, eta Erlete Eztiola elkar-tearen azpiegiturretan egindako hobekuntzak. Saioa amaitzeko, proiektu hau gauzatzea posible egiten duen lan hitzarmena sinatuko dute Urkiola Landa Garapenerako eta Erlete Eztiola elkarteak. Azkenik, boluntariotza sareak proiektuan egindako lana eskertzeko, elkarteak erlezainen ezti laginak banatuko dituzte.

Jardunaldian parte hartzeko izen ematea landagarapena@landagarapena.eus helbide elektronikoan eta 94 620 36 11 telefonoan egin daiteke.



50eko hamarkadan jaiotako ikasleei ateratako argazkia.

Zapatuan 100 urte beteko dira Amezketako eskola sortu zutela

Hainbat ekitaldi antolatu dute auzo eskolaren mendeurrena ospatzeko; oroimen plaka ere ipiniko dute

A.Basauri IURRETA

Azaroaren 24an 100 urte beteko dira Iurretako Arriandi auzoan dagoen Amezketako eskola sortu zutela, eta auzoan modu berezian ospatuko dute mendeurrena. Iurretako Udalak eta Santa Mañako Kofradiak, Arriandiko Jai Batzordearen laguntzagaz, hainbat ekitaldi prestatu dute, auzoan horren esanguratsua izan den eskolaren historia gogoratzeko. Eskolak 1924an zabaldu zituen ateak, eta orain 20 bat urtera arte egon zen zabalik.

Txaro Larrinaga Amezketako eskolan ikasi zutenetarikoa bat da. "Orduan, 50 neskato eta beste horrenbeste mutiko ibiliko ginen eskolan. Gure aita ere urte bigaz hasi zen bertan, aurretik ez zegoelako lekurik", gogoratu du. "Amezketako eskola erreferente bat izan zen garai batean, eta polita izango

da zapatuan eskolagaz lotura izan genuenok elkartzea", gaineratu du.

Ametza landatuko dute

Eskolaren historiari buruz Iñaki Goigoganak emango duen berbaldiagaz hasiko dituzte ekitaldiak, 12:00etan. Ondoren, Kristina Mardarasek eta Justo Albedrik zenbait bertso kantatuko dute, eta Rafa Sarrionandiak banango zaharra dantzatuko du. Jarraian, oroimen plaka ipiniko dute eskolako atarian. Eta, ekitaldia borobiltzeko, ametz bat landatuko dute. Bertaratzen direnentzat luntxa ere prestatu dute antolatzaileek. Egunean bertan, Amezketako eskolaren eta auzoaren historia batzen dituen argazki erakusketa ipiniko dute ikusgai. Auzokoek utzitako ehunka argazki batu dute antolatzaileek, denak Arriandiko historiaren lekuko.

Azoka Solidarioa antolatzeko bilketa hasi dute Iurretan

A.Basauri IURRETA

Iurretan prest daude Azoka Solidarioa prestatzen hasteko. Aurten hamarkada bat egingo du eta abenduaren 9tik 13ra bitartean izango da. Dagoeneko hasi dira objektu eta arropa bilketa egiten. Jostailuak, bitxiak, arropa, dekorazio elementu eta objektuak, sukaldeko objektuak... batuko dituzte da-

torren azaroaren 29ra bitartean. Ibarretxe kultur etxera joan daiteke merkaturako objektuak uztera, 09:00etatik 13:00era edo 15:30etik 20:00etara, elkartasun ekimeneko antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Dirua JAED elkartearantz

Anderebide elkarrekin antolatzen du Azoka Solidarioa, Iurretako Udalaren laguntzagaz. Eta bertan baturiko dirua JAED elkarrearen esku utziko dute. Iaz, 2.000 euro batu zituzten.

Otxandion kirol gune berria eraikitzeke lizitazioa hasi dute

Udalak pump track pista, kalistenia gunea eta erabilera anitzeko zelaia egokitu ditu Mainondon

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Udalak hasi du Mainondo kirolgune berria eraikitzeke lizitazio prozesua. Herriko kirol elkarteekin, hezkuntza eragileekin eta eskolako umeekin landuriko proiektuak pump

track pista, kalistenia gunea eta erabilera anitzeko zelaia batzen ditu. Horrez gainera, Antonbentako zubitik frontoiraino kota zero espaloia egokituko dute. Lanak datorren urteko lehenengo hiruhilekoan hastea aurrei-

kusi dute. Udalak 818.000 euro inguruko aurrekontua lotu du lanok egiteko, Egoitz Garmendia alkateak azaldu duenez.

Behin lanak hasita, gehienez bost hilabete iraungo dute. Hartara, 2025eko uda amaierarako kirolgune berria erabiltzeko prest egongo litzateke. Halaxe jakinarazi dute udal arduradunek. Udalbatzarrak joan zen urrian onartu zuen Mainondoko kirolgune berriaren proiektua. Baita lizitazioarako baldintza orriak ere.


Mondragon
Unibertsitatea



ATE IREKIAK

Unibertsitate Graduak

INGENIARITZA

- Arrasate AZAROAK 30 ABENDUAK 14
- Galarreta EKO Campus ABENDUAK 14 (Orona Ideo)
- Bilbao AS Fabrik ABENDUAK 14
- Goierri-Ordizia ABENDUAK 14

ENPRESA KUDEAKETA

- Bilbao AS Fabrik AZAROAK 16
- Oñati ABENDUAK 14
- Bidasoa-Irun ABENDUAK 14

EKINTZAILETZA

- Bilbao BBF AZAROAK 14
- Bidasoa-Irun AZAROAK 14
- Oñati AZAROAK 14

HEZKUNTZA

- Eskoriatza AZAROAK 23
- Bilbao AS Fabrik AZAROAK 23

KOMUNIKAZIOA

- Aretxabaleta AZAROAK 23

HUMANITATEAK

- Bilbao AS Fabrik AZAROAK 23

GASTRONOMIA

- Basque Culinary Center
- Donostia AZAROAK 30

Eman izena!

www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak



Learning
from
reality

JAEDen stand solidarioa zabalik urtarrilaren 6ra bitartean

Durangoko JAED elkarteko kideek aurten denda solidarioan 70.000 errifa saltzeko erronka hartu dute

E.H./M.Z. DURANGO

JAEDen denda solidarioa zabalik dago jada, eta herritarrek urtarrilaren 6ra arteko epea izango dute errifak erosteko. Zozketa egun horretan egingo dute, hain zuzen ere, 13:00etan.

Elkartek 34.000 euro inbertitu ditu sariak erosten; Iurretako eta Durangoko establezimenduek ere hainbat ekarpen egin dute. Edizio honetan zozkatuko dituzten sarien artean, Renault Clio Techno TCE90 autoa, bidaiak,


Apple gailuak, Samsun ordenagailu eramangarriak eta gitarra elektrikoak eta urdaiazpiko iberikoa daude. Aurten, 70.000 errifa saltzeko erronka hartu dute.

Dolua elkartean

Aste honetan, elkartearen sorrerako kide eta 23 urtez elkarteko presidente izan den Maria Eugenia Uncilla Carreto hil da, 87 urte zituela. Elkartetik azaldu dute Uncilla "elkartea ulertzeko funtsezko pertsona" izan dela.



Urtarrilaren 6ra arte egongo da zabalik.



POLITIKAN

PAULE SANCHEZ
EAJ

Gaitza errotik kentzea guztion ardura da

Azaroaren 25a Emakumeengana-ko Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da. Gai honekin, GAITZ honekin, gizartea gero eta sentsibilizatuago eta kontzientziatuago dagoela azpimarratzen dute hainbat ikerketak. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egiteko nahia gero eta nabarmenagoa da eta neurri eraginkorragoak eskatzea ezinbestekoa.

Gainera, datu kezagarri batzuek erakusten dute hiru pertsonatik batek bikotekidearen tratatu txarrak pairatu dituen emakumeren bat ezagutzen duela, baita emakumeengan indarkeria eragin duen gizonen bat ere. Hortaz, indarkeria matxista gizarte osoaren arazo larria da.

Guztionez ardura da jazarpen edota indarkeria mota oro pairatzen ari den edonor identifikatu, behar duen babesa eskaini eta laguntza hori modu eraginkorren gauzatzeko eskura dauden baliabideak ezagutzea.

Indarkeria matxista errotik kentzea guztion erantzukizuna da eta indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzea guztion helburua izan behar da.

Egunotan, hainbat ekintza eta mobilizazio antolatuta dira Durangon. Emakumeen aurkako indarkeria gelditzeko ekintzetan parte hartzeraz deitzen zaituztet. Era berean, Andragunera joatera animatzen zaituztet, biktimak artatzeko baliabideak hobeto ezagutzeko, Indarkeriaren Aurkako Unitate berria, adibidez.

DURANGALDEA ASTEON

Eugenia Otaduy durangarrak 101 urte egin ditu

DURANGO Zapatuan, 2024ko azaroaren 16an, Eugenia Otaduy durangarrak bere 101. urteguna ospatu zuen. Durangoko herritarren izenean, Eugenia Otaduyk Mireia Elkoroiribe herriko alkatearen bisita eta zorion agurra jaso zituen.



Zapatuan egin zuten ospakizun bazkaria.



Joan zen barikuko ekintza Abadiñon.

Protesta egin dute Gazako "genozidioa" salatzen

DURANGALDEA Palestinaren alde Durangaldean dauden hainbat taldek protesta ekintza bat burutu zuten joan zen barikuan McDonald's-en aurrean. Gazan bereziki, baina baita Zisjordanian eta Libanon ere, jasaten ari diren "genozidioa" salatzea izan zen ekintzaren helburua.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Abesbatzen kontzertu benefikoa zapatuan

DURANGALDEA Durangoko, Abadiñoko, Iurretako eta Zornotzako abesbatzek kontzertu solidario bat emango dute zapatuan, azaroak 23, Durangoko Santa Ana elizan. Jasotako funtsak denboraleak kalteturiko herritarrei emango dizkiete, *Save The Children* erakundearen bitartez. Emanaldi benefikoa 17:00etan hasiko da.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

A25

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO EGUNA



Durangaldeko
Mankomunitatea
Mancomunidad
de Durangaldea

**Emakumeenganako
indarkeria
matxistarik EZ!**

E.H. HAURDUNALDI SUBROGATUA

Meloia ireki (Abrir el melón) zuen izena June Fernandezek (Bilbo, 1984) orain lau urte kaleraturiko liburuak. Kazetariak *Pikara Magazine* aldizkari feministan publikaturiko testuetariko batzuk batu zituen argitalpen hartan. Oraingo hau bestelakoa da, baina Fernandezek "meloia zabaldu" gura izan du beste behin ere. Kazetari feministak haurdunaldi subrogatuaz hausnartzeko tresna bezainbeste prisma batu du *Aingeruak eta neskameak* liburuan.

Eztabaida polarizatu bati patxadaz heltzeko heldulekuak batu dituzte liburuan. Haurdunaldi subrogatuei buruzko 'meloia zabaltzeko' beharritza ikusi duzu?

Bai. Haurdunaldi subrogatua etengabe agertzen da hedabideetan, baina diskurtsoa azalean geratzen da askotan, bai muturretako batean, eta baita bestean ere. Izenburuak polarizazio horri egiten dio erreferentzia, hain zuzen ere. Alde batetik, aingeruen arketipo hori dugu. Hau da: haurdunaldi subrogatuen aldeko sektorean, emakume umedunak beste laguntzeko prest dauden aingeru legez azaltzen zaizkigu. Eta, beste muturrean, feminismotik zein beste sektoreetatik eratorritako kritikak daude. Horietan, umek ernaltzen dituzten emakumeak neskame edo esklabo legez aurkezten dira, kapitalismo patriarkalaren mesedetan alienatutako eta ustiatutako emakume gisa. Diskurtso kontrajarri horien bien aurrean, nik ez dut ez batarekin ez bestearekin bat egiten. Iruditzen zait lehenengoari kritika falta zaiola, eta ez dituela aintzat hartzen botere hartu-emanak eta honek dituen kontu estelak. Bigarren diskurtsoa, berriz, orokorkerian, estereotipoetan eta emakumeen erabakimena ukatzean jausten dela iruditzen zait. Zaku berean sartzen ditu sinatu berri duen kontratua ulertzen ez duen Indiako emakume pobre bat zein praktika hau aktibismoagatik egiten duen klase ertaineko emakume kanadarra. **Liburuan agerian utzi duzu auziaren izaera polidrikoa. Ezaugarriko nahia aletu dituzte?**

Bai. Gai honen konplexutasuna aitortze aldera, interesgarria deritzot fokua ezagutza arlo bakoitzeko ezaugarrietan ipintzeari. Demagun gaia ikuspegi filo-

"Iruditzen zait eztabaidarako elementu berriak mahai gainean ipintzea eskertu duela jendeak"

JUNE FERNANDEZ CASETE KAZETARIA ETA EKINTZAILE FEMINISTA

Fernandez bilbotarrak 'Aingeruak eta neskameak' saiakera (Lisipe, Susa) aurkeztu du Berrizko Kultur Etxean

sofiko batetik behatzen dugula. Kasu horretan, analisisa teorikoa izango da, eta, beharbada, haurdunaldi subrogatuen kontra agertuko gara. Alabaina, auziari lege ikuspegi batetik behatzen badiogu, debekuek eta legeztatzeek ekar ditzaketen korapiloak ikusiko ditugu beharbada. Arlo perinatalera bagoaz, umedunen eta umeen eskubideak ipiniko ditugu eztabaidaren erdigunean. Aldiz, auziari ikuspegi antirrazista batetik heltzen badiogu, honako galdera hau egingo diegu geure buruari: zergatik kezkatzen gaitu hainbeste gai honek, eta zergatik ez gaituzte horrenbeste aztoratzen emakumeengana? Hala nola barneko etxeko langileenganakoak. Ertz horiek guztiak direla eta, liburuazazpi kapitulutan banatu dut.

Euskal Herriko mugimendu feministako 19 aktibista elkarrizketatu dituzu. Aukeraketa gatxa izan da?

Elkarrizketatuak hiru multzotan sailkatuko nituzke. Lehenengoan, adituak daude. Esate baterako, Itziar Alkorta zuzenbide zibileko irakaslea eminentzia bat da gai honetan. Haurdunaldi subrogatua landu du bere doktore tesian, euskal alderdi politikoak aholkatu ditu; argi neukan bere ekarpena handia izango zela. Bestetik, Josebe Iturrioz dauka, Medeak taldeko kide ohia; eta baita Ianire De la Calva FeministAldeko kidea ere. Bi horiek sarritan egon dira hedabideetan eta mahai-inguruetan gai honi buruz hizketan. Bigarren multzoan, haurdunaldi subrogatuen ez baina gurasotasunean trebatutako adituak daude. Adibidez, Iosune Fernandez Centeno, adopzio transnasionalei buruzko doktore tesia egiten dabilena. Interesgarria iruditu zait bere ekarpena, askotan adopzioa

ipintzen da-eta haurdunaldi subrogatuaren alternatiba etiko gisa, eta nik neuk zalantzan ipini gura izan dut hori. Bestalde, gai perinataleko buruzko atalean, Ana Mendia emagina eta Estitxu Fernandez psikologoa ditugu. Azkenik, hirugarren multzoan, gai honekin hartu-emanik ez duten baina haien jakintza arloa interesgarria den kideak daude. Hor dago Miren Ortubay zuzenbide penaleko irakaslea. Haurdunaldi subrogatua askotan alderatu da prostituzioarekin, eta Ortubayren ekarpena interesgarria iruditu zait prostituzioaren penalizazioa haurdunaldi subrogatura estrapolatu daitekeen aztertzeke.

Sentitu duzu presiorik liburuaz idazterakoan?

Presiorik ez, baina bai kezka eta ardura. Liburuko feministarik gehienak haurdunaldi subrogatuaren praktikaren eta negozioaren aurkakoak dira. Kritikoak dira horrekin, eta gutxi gorabehera denek bat egin dute familiak ez direla estigmatizatu behar esatean. Hau da, modu kolektibo batean kritikatu behar ditugu sistema, negozioa, praktika, baina ez du zentzu gehiegirik norbanakoen kontra egiteak. Beharbada, gurasotasun mota hau aukeratu duten Euskal Herriko familia askok era akritiko batean egin dute hautua, eta ez dute zerbait txarto egin izanaren kontzientziarik. Hori ere lantzen dugu liburuan, izan

ere, erronka da kritika politiko bat inor mindu barik egitea. Nirekin berba egin duten familia asko eskertuta agertu dira feminismotik jasotzen zuten mezua oso bortitza zelako. Entzuteko eta eztabaida pizteko grina igarri

dute liburuan. Bestalde, ez naitenez ez mutur batean ez bestean kokatzen, alde bietatik egurra jasotzeko kezka hori nuen. Iruditzen zait jendeak eskertu egin duela eztabaidarako elementu berriak mahai gainean jartzea.

"AUZIA KONPLEXUA DENEZ, INPORTANTEA DA GAIA HAINBAT EZAGUTZA ARLOTATIK AZTERTZEA"

A25N EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

EGITARAUUA

AZAROAK 3
ESKU PILOTA - EMAKUMEAK
(Elitea, promesak eta gazteak)
Olaqueta Frontoian 11:30
Doan

"BETA" - Zinema
Kultur Etxean 18:00
6€ (bazkideak 3€)

AZAROAK 9
AUTODEFENSA FEMINISTA (Salo eskola)
Kultur Etxean 10:00-14:00 - Doan

Izaera ematea, azken eguna azaroak 7:
berdirlasuna@berriz.eus
946 82 45 25 // 603 837 471

"MEMIA. SOY UNA PUTA OBRA DE VELAZQUEZ"
Antzerkia
Kultur Etxean 18:00
6€ (bazkideak 4€)

AZAROAK 10
"ROBOT SALVAJE"
Urteontzako Zinema
Kultur Etxean 17:00
6€ (bazkideak 3€)

AZAROAK 15
"ONIN ETA ANTZERGIAREN MISTERIOA" - Familia Antzerkia
Kultur Etxean 17:00
6€ (bazkideak 4€)

AZAROAK 16
AUTODEFENSA FEMINISTA (Salo eskola)
Kultur Etxean 10:00-14:00
Doan

AZAROAK 21
KAFEMINISTA TERTULIA "Aingeruak eta neskameak: haurdunaldi subrogatuei buruzko analisi feministak"
Idazlea: June Fernandez Casete
Moderatzailea: Miren Amuriza
Kultur Etxean, ikasgelan 18:00
(sarrera, erropide ondoko atetik)
Doan

AZAROAK 23
"JBI, BEDI" - Kostertua
Kultur Etxean 19:00
6€ (bazkideak 4€)

AZAROAK 25
Leurreta-Markina Ikastetxea: Indarkeria matxista salatzeke bideoa eta Taido Maroa aurkeztuko dituzte.

MOBILIZAZIOA 18:30
Arlokatzaileak: Azeri Gorriak, Emakume Migratzen Elkarria eta Gure Izarrak

BERRIZKO UDALAK, HERRITAR ORORI DEJ EGITEN DIO, MOBILIZAZIOAN PARTE HAR DEZAN.

AZAROAK 26
ANTZERKI LABORATEGIA
Jabekuntza Ikastetxe saio partehartzailea
Kultur Etxean 18:30
Doan

BERRIZEK EZ DU EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK ONARTZEN

Zabaldu dezagun 'mapamundia'. Haurdunaldi subrogatuari buruzko zere errealitate ikusiko dugu munduan zehar?

AEBetan oso errotuta dago. Umeak sortzea edozein norbanakoren arteko negozio lez ikusten dute han. Errusian ere egonkor-tu den praktika da. Indian, emakumeak ospitale pribatuetan egoten ziren sartuta ernaltze prozesu osoan zehar. Baina, gero, estatuak legea aldatu zuen, eta, momentu honetan, atzerri-tarrek ezin dute praktika hori han gauzatu. Ukrainako gerra hasi arte, euskal herritar askok hara jotzen zuen prozesua egite-ra, baina gaur egun herrialde hori aukera bat ez denez, Georgia dabil indarra hartzen. Mexikokoa ere kasu nabarmena da. Hango estatu bitan baino ez dago baimenduta. Dena dela, gainerako estatuetan debekua egon arren, epaile askok subrogazio akordioak onartzen dituzte. Kanadan, oste-ra, modu altruistan baino ezin da gauzatu haurdunaldi subrogatua. Baina zalantzak ditut horrekin, altruismoa sustatzeak arriskua ekar dezakeelako emakumeon osasun fisiko eta emo-

zionalera. Oso eredu desberdinak daude herrialdeen artean, eta askotariko faktoreek esku hartzen dute: giza eskubideen urraketek, legeek eta sozioekonomiak, besteak beste.

Haurdunaldi subrogatuak zelan eragiten dio familiaren irudikapenari?

Eredu berri bat eskaintzen du ala irudikapen klasikoa lehertzen du?

Liburuaren 6. atala horri buruzkoa da, hain zuzen ere. Segun eta zelan egiten den, gauza biak indartu daitezke. Adibidez, Gracia Trujillo ekintzaile *queer*-aren iritziz, haurdunaldi subrogatuak

zalantzan ipini dezake gurasotasuna. Bere esanetan, ama izan zaitezke erditu barik, edo haurdun egon zaitezke gero ama izan barik. Edozelan ere, zalantzan ipintzen dut hori, gurasotasun *bolloek* horrekin apurtu dute eta. Liburuan sarri aipatzen da

filiazio anizkoitza. Hau da, ume batek guraso bi baino gehiago izatea. Eraldatzaileagoa deritzot halako familia zabalagoak sortzeari. Umeak guraso sozialak eta guraso biologikoak izango ditu kasu horretan, eredu kolektiboago bat.



June Fernandezek 'Aingeruak eta neskameak' liburua kaleratu du aurten.

Zal di bar

Berdintasuna

AZAROAK 22

INDARKERIA MATXISTA IDENTIFIKATZEN

18:00 HITZALDIA LIBURUTEGIAN

AZAROAK 25

ELKARRETARATZEA

19:00 UDALETXEKO PLAZA



INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO GIDA

EUSK



GAZT



Maialen Zuazubiskar LASTERKETA Urtebeteko etenaren ondoren, Durango Kirol Taldeko kideek iaz berriro Emakumeen Lasterketa antolatzea erabaki zuten. Indarberrituta bueltatu ziren eta lasterketak arrakasta handia izan zuen. Beste behin ere, indarkeria matxistaren aurkako aldarriak lau haizeetara zabaldu zituzten. Durangoko Emakumeen Lasterketa gure artean luzaroko izango den lasterketa da. Aurtengo edizioa azaroaren 24an egingo dute, domekan, 10:30ean. Garazi Sampedrok lasterketaz bat egiteko deia egin die emakume guztiari.

Badator VII. Emakumeen Lasterketa. Hasteko eta behin, bertan ikusiko zaitugu?

Bai, bertan izango naiz. Antolakuntzan laguntzaile lanetan ibiliko naiz, dortsalak ematen

"Emakumeak ahalduntzeko lasterketa da"

GARAZI SAMPEDRO ARANDO KORRIKALARIA Sampedro Durango Kirol Taldeko kidea da eta Emakumeen Lasterketako antolatzaileetarikoa bat

edo beste edozein lan egiten. Ez dut korrika egingo, baina antolakuntzan arituko naiz.

Imajinatzen dut antolakuntzakoak lanean buru-belarri ibiliko zare-

tela egun hauetan. Lan handia izaten duzue?

Bai, horrela da. Baina, tira, taldeak esperientzia handia du lasterketak antolatzeko orduan, eta horrek lagundu egiten du. Atletismo pistako ekitaldiez gainera, hainbat lasterketa antolatzen dugu: Sorginen Lasterketa, Emakumeen Lasterketa eta Elorrioko Santxi-biri. Beraz, esperientzia hori oso lagungarria da probak antolatzeko, baina, tira, beti egon daitezke ezustekoak edo azken orduko kontuak. Beraz, lan handia eskatzen du, bai.

Urtebeteko etenaren ondoren, iaz berriro antolatu zenuen lasterketa. Luzaroko lasterketa izango dela uste duzu?

2021ean proba antolatu, eta erantzun ona izan zuen. 2022an lantaldea aldatu egin zen apur bat, eta iaz lasterketa berriro egitea pentsatu genuen. Ikusten genuen karrera interesgarria izan daitekeela, oso giro ona sortzen dela herrian, eta Durangon errota dagoela. Gainera, indarkeria matxistaren kontrako egunaren bezperan egiteak badu bere zentzua. Azken finean, aldarrikapena egiteko erabiltzen dugun lasterketa bat da.

"ALDARRIKAPENA EGITEKO ERABILTZEN DUGUN PROBA DA EMAKUMEEN LASTERKETA"



Garazi Sampedro, Durango Kirol Taldeko kidea.

AZAROAK 25

Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna

"NO, GRACIAS. DANZAS DE UNA NIÑA ROTA"
ZAHY VERA
Dantza ikuskizuna eta solasaldia

Eguna
Azaroak 15, ostirala

Hizkuntza
Gaztelera

Lekua
Errota Kultur Etxea

Ordutegia
19:00 - 20:30

Prezioa
Dohainik
Sarrerak Errota edo Mediatekan

Hautzaroen bizi izandako sexu-abusuak sendatzeko eta eraldatzeko prozesu biografikoa kontatzen digu Zahy Vera artista, dantzari eta terapeutak lan honetan.

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO TOPAKETA

Eguna
Azaroak 21

Ordutegia eta Lekua
12:00-14:00 Errota edo
18:00-20:00 Txanpota

Hizkuntza
Elebietara

Prezioa
Dohainik

Izen ematea
<https://forms.office.com/e/2QamWIX7p>

Indarkeria Matxistari aurre egiteko topagune bat izango da herrietan eta elkarteetan osatuta. Saio honetan zehazki, Indarkeria Matxistaren Durangaldeko Protokoloaren berri emango da, eta tresnak eskainiko dira indarkeria matxista antzematen ikasteko, eta jakiteko zer egin edota nora jo behar diren.

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Eguna
Azaroak 25, astelehena

Alderazi zure gaitzespen irimoi indarkeria matxistari zure etxeko lehoian, negozioan... puntu morea jarri. Kartela jaso ahal izango duzu Errota edo Mediateka Kultur Etxean.

ABADIÑOKO UDALETIK DEI EGITEN DIZUEGU PARTE HAR DEZAZUEN ABADIÑOKO MUGIMENDU FEMINISTAK BAT EGINGO DUEN DURANGOKO MOBILIZAZIOETAN.

KONTAKT DANTZA TAILERRA: INAKI SANTOS

Kontsentimendua lantzen gorputzetik

Eguna
Azaroak 27, asteazkena

Ordutegia
18:00-20:00

Lekua
Txanpota Kultur Etxean

Hizkuntza
Elebietara

Kontakt dantzaren bidez baimenaren gaitasuna lantzeko dugu. Arketak egingo ditugu ikusteko zehin garrantzitsu den entzutea, komunikatzea, eta pertsonaren nola taldearen mugak errespetatzea. Ez da aldez aurretiko dantza esperientziarik behar.

Ikusteko ere oso proba polita da, Askatasun Etorbidetik birritan pasatzen da eta. Eta ikuskizuna ere bermatuta dago, maila handia egoten da eta. Iaz, esaterako, esprintean erabaki zen proba. Oso polita izaten da. **Emakume guztiak batzen dituen lasterketa da zuena.**

Eguna bera erakargarria da eta horrek emakume asko batzea ekartzen du. Lehian dabilzan maila handiko lasterkariak zein korrikalari popularrek parte hartzen dute. Proba hau oso aproposa da hasiberri batentzat, esate baterako, distantzia aldetik ez da bost kilometrora heltzen eta.

Zergaitik animatuko zenuke jendea VII. Emakumeen Lasterketan parte hartzera?

Batez ere emakumeentzako jai bat delako; aldarrikapena bai, baina jai ere bai. Askotan neskek konplexuak izaten ditugu korrika egitera irteteko. Nik neuk, lasterkari modura, askotan konplexu leloak izaten ditut. Esaterako, lasterketa batean, askotan ez gara irteera lerroan aurrean ipintzen, uste dugulako ez dela gure lekua; azken batean, mutilek egon behar dutela lerro horretan, hobeak direlako eta

abar. Pentsamendu horiek atzean uzteko espazio bat ematen du lasterketa honek, gu trankil eta eroso sentitzeko proba bihurtuz. Eta honek lasterketa misto batean parte hartzera animatzeko edo konplexuak kentzeko balio badu, ba ezin hobeto! Emakumeak ahalduntzeko lasterketa bat da; korrika egiteak berak asko ahalduntzen du.

Emakumeen lasterketaz gainera, lasterketa laburra ere egongo da. Hala da, bai. Umeei eta mutilei ere aukera emateko, lasterketa nagusiaren aurretik, 10:30ean, lasterketa laburra egingo dugu, testimoniala. 1.600 metroko proba izango da eta edozeinek parte hartu ahal izango du bertan, edozein adin eta generokoak. Horren ondoren, lasterketa nagusia egingo dugu. Lasterketa nagusiko dortsal banaketa 09:30ean hasiko da, eta 10:15ean amaituko da izen ematea. Sari banaketa eta zozketak 12:00etan egingo ditugu.

Garazi, zuzag gaudela aprobeztatu, zure kirol ibilbideari errepasso txiki bat egingo diogu. Urtea Euskadiko Kros Liga irabaziz hasi zenuen, DKTgaz taldeko Espainiako lasterketa bertikalen txapelketa irabazi zenuen, eta baita mendi



lasterketen Espainiako txapelketa, hori ere DKTko taldeagaz. Eta Euskadiko Trail txapeldun ere geratu zara, besteak beste. Zer balorazio egiten duzu?

Balorazioa oso positiboa da. Urtea ilusioz hartu nuen eta balorazioa ona da. Krosak gustuko ditut eta kros ligan parte hartzeak ilusioa egiten zidan. Primeran etorri zitzaidan motibatzeke. Baina, berez, mendi lasterketak ditut pasio, eta horiei ekin nien. Euskal Mendi Federazioko kopa jo nuen helburutzat. Zortzi lasterketa izan dira, apiriletik urrira bitartean, eta bostetan parte hartzea ezinbestekoa zen. Zazpi lehiatu ditut eta horietariko bost emaitzarik onenak kontuan hartzen dira. Oso ondo hasi nuen Kopa, ekainean lider jarri nintzen, baina gero zorte txarra izan nuen. Orkatila okertu, eta lasterketa bertan behera utzi behar izan nuen. Hanka dela eta, uztaileko eta iraileko probetan ez nintzen hain ondo ibili, eta, gainera, orduan jokatu zirenetan, Iparraldekoetan, puntuazioa handiagoa zen. Bataren eta bestearen ondorioz, laugarren jarri nintzen sailkapenean. Azken lasterketan,

finalean, ondo baino hobeto ibili nintzen, eta, azkenean, hirugarren amaitu nuen Kopako sailkapen orokorrean. Beraz, udako lesioa eta zorte txarra kenduta, pozik nago lorturikoa. Finean, joko horrelakoa da eta nik hau joko bat lez hartzen dut; beraz, balorazioa ezin hobea da.

Joko modura diozu, baina zure egunerokoan prestaketa handia eskatzen duen joko.

Jakina. Jokoa da, berez, baina pasioz egiten dudana kirola da eta ahalik eta ondoen egitea gustatzen zait. Txarto edo ondo egin dezakezu, baina, tira, nik ez diot horri buelta larregirik ematen. Bideagaz gozatzea gustatzen zait eta ondo entrenatzen ahalegintzen naiz, nire aldetik ahal dudana ematen.

Eta hemendik aurrera, zer?

2025ean berriro ere Euskal Mendi Federazioko Kopa lehiatu gura dut. Zentzua ikusten diot Kopari, hilean gutxi gorabehera lasterketa bat korritzeari. Eta ilusio berezi bat ere badut. Federazioak irizpide batzuk ditu, eta, esaterako, eurek aukeraturiko lasterketaren batean emaitza ona

lortuz gero, Euskal Selektzioagaz munduko beste lasterketa batzuetan parte hartzeko aukera ematen dute. Horrelako probak oso erakargarriak dira eta ahalgina egingo dut nire mailarik onena ematen. Esperantza hori dut, nazioarteko beste lasterketa batzuetara joatea.

Urtetik urtera hobetzen doan korrikalaria zara. Goia oraindino urrun ikusten duzu?

"LASTERKETA HONEK KONPLEXUAK GALTZEKO ESPAZIO BAT EMATEN DU"

"GAUR EGUN MENDI LASTERKETAK DIRA NIRE PASIOA ETA LEHENTASUNA"

Berandu samar hasi nintzen korrika egiten, 26 urteagaz. Dagoeneko hamar urte joan dira lehenengo dortsala ipini nuenetik, baina, bai, urterik urte hobetzen joan naizela ikusi dut. Erresistentziako eta arnas luze-ko kirolean ez dago sekretu handirik; konstantea izateak eta urterik urte entrenatzen jarraitzeak ematen du hobekuntza. Hori bai, muga bat dago: adina. Horrek bere neurria ipiniko du, baina, tira, 35 urte ditut eta oraindino gazte ikusten dut neure burua. Oraindino ikusten dut hobekuntzarako tartea.

Amaitzeko, aurten duatloi batean parte hartzen ikusi zaitugu, lehenengo.

Mungia duatloian parte hartu nuen, kasualitatez, lagun batek egindako proposamena onartuta. Beti izan dut gogo duatloia probatzeko, eta esperientzia itzela izan zen. Ikargari disfrutatu nuen eta seguru ez dela azkena izango. Egia esan, niri dena gustatzen zait, baina ezin da dena egin. Lehentasunak ipini behar dira eta gaur egun mendi lasterketak dira nire pasioa eta lehentasuna.

AZARROAK 25 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA ZABALIZKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZARROAK 20

17:30 | Plateruena – Landako etorbidea, 4A
Hitzaldia Irati Martin Cea Guzu. Centro de psicología y sexología.
 "POR NO" A ERDIGUNERA.
 Sexuaz aritzeko gakoak egungo errealitate nahasian.
 DBH ikasleen gurasoentzako hitzaldia.

AZARROAK 24

VII. Emakumeen lasterketa | Ezkurdi Plazan
 Durango Kirol Taldea
 10:30 | Lasterketa Laburra. 1600m.
 Eskoletako neska-mutilentzako eta lasterketaren xedearekin bat egiten duten gizonentzako.
 Jarrailan Lasterketa Nagusia, 4800m.
 Izena emateko: kronoak.com
 Izena eman duten eta dortsala daukaten emakumeentzako bakarrik.
 Bildutako dirua ihurri elkarteari emango zaio. minbiziaren akonpainamendu, formazio eta dibulgazioan ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik diharduen elkarteak.

Antzerkia
 19:00 | San Agustin Kultur Gunea.
 Sanagustinalde, 12
 "LAS BINGUERAS DE EURÍPIDES"
 Las niñas de Cádiz. Sarrerak: 12 € (Bazkideak 9 €)

AZARROAK 25

13:00 | Eraildako emakumeak oroitzeko gunea.
 Ambrosio Meabe Plaza
 Adierazpen instituzionala eta lore-eskaintza.

19:00 | MOBILIZAZIOA

Durango
 Autodefensa Feminista
 Asanbladak deituta

AZARROAK 27

10:30 | Zugaza Zineman
 "How to have sex" Molly Manning Walker.
 filmaren zuzendaria. Sortzen Kontsultoriak gidatua.
 2. Batxilergoko eta Lanbide Heziketa-Erdi mailako ikasleei zuzenduta.

AZARROAK 29

18:00 | Andragunea - Lariz Dorrea, 2
Hitzaldia
 ¿Qué es la violencia obstétrica?
 Nerea Azkona antropóloga y autora de "Madre en duelo" e Itziar Eizmendi abogada en casos de violencia obstétrica y negligencia médica en partos.

BERRIA! INDARKERIA MATXISTA

Indarkeria matxisten biktima diren emakumeei arreta, laguntza eta deribazioa emateko zerbitzua.

10:00-14:00
 Astelehen asteazken eta ostiraletan

11:00-14:00 // 16:00-19:00
 Astearte eta ostegunetan

946030046 / 618 79 13 33
 Andragunea. Lariz Torre, 2

Ikasturtean zehar: Sentsibilizazio eta bortizkeria prebenitzeko tailerrak ikastetxeetan.



Josune Muñoz. SKOLASTIKA

"Badaude indarkeria modu kritikoan planteatzen duten telesailak"

Azken boladan hainbat serie ekoizten dabilta maitasun erromantikoaren mitotik kanpora. Horiek oinarri hartuta, indarkeriari buruz hausnartu dute Zornotzan

Jone Guenetxea ZORNOTZA

'Nerabe eta emakume gazteen aurkako indarkeriak telesailetan' berbaldua antolatuta zuten Zornotzan, Azaroaren 25eko ekitaldiaren barruan. Skolastikako Josune Muñozen gidaritzapean, hain ezagunak diren telesailetan indarkeria zelan identifikatu landu zuten.

Zein izan da berbaldiaren helburua?

Emakumeen kontrako indarkeriak detektatzeko tresnak ematea izan da helburu nagusia. Tresna horiek telesailen bitartez identifikatu genituen.

Zelan joan zen berbaldia?

Emakume gazteak ere etorri ziren eta poztekoa da hori. Zenbait belaunalditako emakumeen arteko espazioak sortzea oso zaila izaten da, kosta egiten zaigu. Horrela, neska gazteek ikusita zituzten telesailak komentatu zituzten. Hala ere, gehienak andre helduak ziren.

Telesailetan, batzuetan, indarkeria agerikoa da eta erraz identifikatzen dugu, baina beste kasu batzuetan badaude beste indarkeria mota batzuk zailagoak direnak identifikatzen, baina eragin handia dutenak.

Horregaitik, hain zuzen, indarkeria sinbolikoa lantzen hasi ginen. Indarkeria guztien sostengua da, eta gutxien identifikatzen duguna, oso abstraktua delako ideietan eta errepresentazioetan. Baina, iruditzen emanez gero, ikusi egiten da.

Telesailetan zeintzuk indarkeria mota identifikatzen dituzu gehienbat?

Indarkeria telesail guztietan agertzen da, gure jendartearen parte delako eta oso hedatuta dagoelako. Baina hiru irizpide hartu genituen. Bata protagonistak emakume edo nerabe gazteak izatea. Bestea orotariko indarkeriak egotea, baina bereziki indarkeria sexuala. Eta hirugarren irizpidea ere garrantzi handikoa zen, autobiografikoa izatea. Benetan gertaturiko istorioetan kokatu gura genuen gaia.

Adibide modura, telesailen bat landu zenuten?

Bai, zerrenda bat banatu genuen. *Unorthodox*, *Creedme* eta *Podría Destruirte* autobiografikoen artean landu genituen. Bestalde, *Euphoria*, *Sex Education* eta *Por Trece Razones* fikziozko telesailetan.

Elorrioko Udala indarkeria matxistaren aurka

Azaroaren 25ean,
19:00etan, plazara!



Elorrioko udala

Adibide horietan indarkeria agertzen da, baina gaia lantzeko modu propioa dute, ohiko eredutik kanpokoa. Izatez, telesail hauetan gaia oso era kritikoa agertzen da. Indarkeria horiek salatzen sortutako telesailak dira. Gidoian kritika hori planteatzen da.

Telesail askotan emakumeen eta gizonen arteko estereotipo sexistak erreproduzitu egiten dira. Irizpide kritikoa izatea beharrezkoa da.

Betaurreko moreekin horixe gertatzen da. Behin betaurreko horiekin begiratzen hasten zarenean ez dago atzera bueltarik. Horregaitik planteatzen dugu protagonista emakume gazte bat izatea, horrek oihartzun handiagoa izaten duelako. Oraindik nagusi diren mezu horien artean, gutxienez alarma kritiko batzuk piztea da helburua.

Maitasun erromantikoaren mitoa sarritan agertzen da nerabe zein emakume helduentzako telesail eta pelikuletan. Indarkeria lez identifikatuko zenuke?

Bai, mota bitakoa izan daiteke indarkeria. Maila sinbolikoa gertatu daiteke, eta ematen den mezua da emakumeok ez garela benetako subjektuak eta ez ga-



"INDARKERIA SINBOLIKOA INDARKERIA GUZTIEN SOSTENGUA DA"

rela gure bizitzaren jabeak, eta besteak daude gure bizitzaren erdigunean, ez gu geu. Eta indarkeria psikologikoa da etengabe entzutea maitasun desigual horren normatiba osoa. Oraindik ere, behin eta berriro entzuten ditugu maitasunaren inguruko mota horretako mezuak. Gure bizitza ez dagoela beterik bikotekiderik edo seme-alabarik ez badugu, esate baterako. Hori indarkeria sinboliko eta psikologikoa da gutxienez.

Maitasun erromantikoaren mitoa hori aldatzen dabil ala asko aurreratu dugu?

Oraindik eredu hegemonikoa da, zalantzarik barik. Oraindik alde guztietan mantentzen da. Berbaldian diskurtso kultural baten barruan kokatu dugu. Diskurtso horiek bat etortzen dira telesailetan, musikan, zineman..., baina, egia esan, literaturan bereziki, autobiografiatan, komikietan eta telesailetan bestelako ereduak sortzen eta mantentzen ari dira. Hor badago orain arte egon ez den arrakala bat. Baina, zoritxarrez, maitasun eredu hegemonikoa erromantikoa da. Kostatuko zaigu aldatzea. Maita-

sun eredu horrek indarkeriak eta sistema patriarkala sostengatzen ditu. Oinarrizko arazoa da.

Eredu hegemonikoaren aurrean, sortzaileak gauza ezberdinak eskaintzen dabilta.

Benetan ikusteko dagoen materialaren zerrenda handia da. Zornotzako berbaldian banatu genuen telesail zerrenda 30ekoa zen. Badaude indarkeria modu kritikoa planteatzen duten telesailak. Nahi izanez gero, topatu daitezke. Baten bat oso ona bada, ahoz aho berehala zabaltzen da. Baina, egia esan, eredu hegemonikoa hedatuago dago.

Neska gazteak inguruan dituzten hezitzaile eta familiei zeintzuk tresna eman ahal zaizkie iritzi kritikoa hori bultzatzeko?

Nik batzuetan amestu egiten dut badagoela horren guztiaren inguruan formakuntza emateko prestigio handiko eskola bat, eta momentu bakoitzean beharko zenituzkeen tresnak bertan jasotzen dituzula. Zoritxarrez, gaur egun oraindik borondatezko kontu bat da eta larrialdietan bakarrik erabiltzen da. Guk etengabe ematen ditugu gure formakuntzak plaza guztietan, eta

teorizatu eta gero erakutsi egiten dugu. Baina aipatzen duzun espazio hori ez da existitzen. Tresnak egon badaude, ikertu eta teorizatu egin delako. Maila akademikoan eta mugimendu feministaren aldetik lan ikaragarria egin da, baina gero zaila da hori plazetara eramatea eta gurasoei jakinaraztea non dauden eduki teoriko-praktikoak eta horrelako tresnak. Horregaitik da hain garrantzitsua Azaroaren 25a existitzea. Pena egun bakarria izatea. Gero eta luzeagoa da egun horren eragina. Orain hamar urte egun bakarria zen. Gero aste osoa eskaintzen zitzaien eta dagoen behar handiaren aurrean, orain hainbat egitasmo eta ekimen egiten da. Baina urte osoko arazoa da, hilabete bakarrean kokatzeko. Urte osoan landu beharko litzateke.

"ZORITXARREZ, MAITASUN EREDU HEGEMONIKOA ERROMANTIKOA DA"

AZAROAK 25

AMOREBIETA-ETXANO · 2024

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK EZ

Egin dezagun guztiok bat gizarte berdinezaleago eta seguruago baten alde

 amorebieta
etxano
UDALA AYUNTAMIENTO

"Klimaterioa emakumearen ahalduntzea dakarren bizi etapa da"

AMAIA ZABALETA OSINALDE BIOLOGIAN LIZENTZIATUA ETA NATUROPATA

'Zaindu zure hormonak 40 urtetik aurrera' izenburupean, Amaia Zabaletak (Urretxu, 1983) berbaldia eman du lurretan. Emakumearen bizi etapa honetan zaintza osasuntsuak duen garrantzia nabarmendu du

Aitziber Basauri IURRETA

Emakumeek bizi etapa berri baten aurrean ikusten dute euren burua 40 bat urte dituztenean: klimaterioa hasten da orduan, ugalkortasuna gutxitu eta aldaketa hormonalak hasten diren sasoi. Menopausiaren aurreko urte hauetan, emakumeak hainbat aldaketa igartzen hasten dira.

Klimaterioan sartuta, zeintzuk dira emakumearen gorputzean gertatzen diren aldaketa nagusiak?

Emakumezkoen sexu hormona nagusietariko bi galtzen joaten gara: estrogenu eta progesterona kontzentrazioa jaisten doa apurka. Emakumearen bizitza ugalkorrean zehar, hormona horiek funtzio garrantzitsu asko dute gorputzean. Beraz, garai horre

tatik aurrera, funtzio horiek apur bat baxuago egongo dira, estrogenu eta progesterona kopuruak behera egiten dutelako.

Zeintzuk funtzio dira horiek?

Estrogenuak eta progesteronak asko laguntzen dute kudeaketa emozionalean; baita hezurren osieran ere. Gorputzaren formaren, grasaren eta azukrearen kudeaketan ere laguntzen dute. Beraz, horiek galtzen goazen neurrian beste modu batera bideratu behar ditugu funtzio horiek guztiak.

Zelan zaindu behar gara aldaketa horien aurrean?

Baliabide aukera ikaragarri handia da. Baina elikadura zaintzea eta bizi estilo osasuntsua eramatea da garrantzitsuen nire ustez, naturarekin ahalik eta konexiorik handiena izanda. Elikadurari dagokionez, prozesatuak utzi eta elikagai errealek jatea izan beharko luke beti eman beharreko lehenengo pausoa. Bestalde, bizimodu osasuntsua eraman beharko genuke, gero eta bizi estilo naturalagoa: ariketa fisikoa landuz, eta naturagaz, lurragaz eta eguzkiagaz konektatuz... Eguzkia lurraren, gizakien, animalien, landareen, gure bizitzaren... motorea da, denon motorea. Eguzki argirik gabe eta eguzkitara irten gabe ez gara ondo sentituko. Bada, eguzkiak edozein zaintza osasuntsuren oinarria izan beharko luke.

Disruptore endokrinorik bako produktuak erabiltzea ere gomendatzen duzu.

Hala da, bai. Disruptore endokrinorik gure estrogenuen oso antzeko formatua dute eta gure gorputzera sartzen direnean benetako estrogenuoi tokia kentzen diete, gure gorputzean izugarriko toxikotasuna eraginez eta gure sistema hormonal guztia aldatuz. Xanpuetan, desodoranteetan, makillajeetan, kremetan, pinturretan, arropa sintetikoetan, zar-tagin itsasgaitzetan... daude.

Garbiketa produktuak, adibidez, disruptore endokrinorik jositak daude. Beraz, erabiltzen ditugun produktuetan zenbat disruptore endokrinorik dagoen begiratu beharko genuke. Oso kaltegarriak dira, emakumeentzat zein gizonentzat, eta ahalik eta kontaktu gutxien eduki beharko genuke molekula horiekin. Beraz, produktu ahalik eta naturalenak erabiltzea gomendatuko nuke.

Zelan bizi ditugu emakumeek aldaketa horiek? Zelanbaiteko beldurra sortzen dute?

Beldurra eta ezjakintasuna. Horietxek dira bi hitz gakoak. Agian, ezjakintasuna gehiago, horrek eragiten duelako beldurra. Menopausia emakume zaharrei gertatzen zitzaien zerbait bezala izan dugu beti; baliteke orain dela urte batzuk horrela izatea. Duela belaunaldi batzuetako emakumeak menopausiaren garaira heltzen zirenean, bizi esperantza eta neurri handi batean bizitasuna galtzen zuten. Gaur egun ez da horrela. Menopausiara heltzen arigarenean konturatzen gara ez garela horren zaharrak. Bizi-etapa horretara heltzen garenean, oraindik asko dugu bizitzeko, eta indartsu gaude, oso indartsu gainera.

Amaia Zabaleta.

Emakumeak geroago eta jakitunago dira klimaterioak dakartzan aldaketez?

Jakitunago gara bai, baina ez hori bakarrik; aurrerantzean ere ondo sentitu gura dugu. Duela belaunaldi batzuk oso onartuta zegoen zerbait izan zitekeen. Asko hitz egin gabe gainera, norberak berera eginez, seguruenik beste ezer egin zitekeenik pentsatu gabe. Gaur egun, zorienez, ez da horrela. Klimateriora heltzen garenean, 40tik 50 urtera arteko tarte horretara heltzen garenean, gure gauzak egiten jarraitu gura dugu, ahalik eta

AZAROAK 25

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Pegatinak eta puntu moreen banaketa
Liburutegian interesgunea A25

18:00: Adierazpen Instituzionalaren
Irakurketa Askondon
Ostean, MANIFESTAZIOA

ASKONDO
BIXENTE KAPANAGA
MASPE
BIDEBARRIETA
BIXENTE KAPANAGA
ASKONDO





ondoan gainera. Oraindik urte asko geratzen zaizkigu.

Hainbat dira kasuistatik, baina zeintzuk dira aldaketa garai horretara heltzen gabiltzala erakusten duten sintomak?

Sintomak desberdinaketa ugariak dira: gorputza aldatzea, gizentzea, sofokoak, gauean esnatzea, ilea erortzea, azala desberdin edukitzea.... Eta sakonago joaten bagara, arazoak izan daitezke hezurretan, gibelean, digestioan... Ez da hiruko erregela bat: emakumezkoek sexu hormonak galtzen ditugu eta honako sintoma hauek ditugu. Ez da horrela.

"GESTIO EMOZIONALEAN EDO NORBERAREN BIZIPEN HORIEN KUDEAKETAN DAGO GAKOA"

Emakume batzuek sintoma batzuk dituzte, eta beste batzuek beste batzuk. Baliteke batzuek inongo sintomarik ez izatea, eta beste batzuek sintoma guztiak sentitzea. Argi dago ez dela gauza fisiko edo fisiologiko bat bakarrik. Beste aldagai pertsonal batzuk sartzen dira jokoan: norberak nola bizi duen momentu horretan pasatzen ari zaion hori. Gestio emozionala edo norberaren bizipen horien gestioa, hortxe dago gakoa. Momentuan tokatzen zaizun hori ahalik eta ondoen bizi behar duzu. Egin nahi duzun horretan atentzioa jarri, eta barruan duzun hori aurrera eramanez, zure barruari kasu eginez. Horixe izango da beti garrantzitsua.

Aldaketa hori zelan kudeatu emozionalki, hortxe dago gakoa.

Ez bakarrik emozionalki. Ez gara ari soilik gure egunerokoan emozioak kudeatzeaz, geure buruak eskatzen digun horri kasu egin eta aurrera eramanez baino. Horixe da garrantzitsua, eta horretarako dator bizi etapa hau. Zaila iruditzen zaigu orokorrean, pentsa zenbat gauza utzi behar diren atzean. Eta, naturalagoa den arren, sintoma guztiak kenduko dizkigun pilulatxo bat nahi izaten dugu askotan. Arlo hori lantzen dut nik. Behar denean, laguntza jartzen dugu, edo belarrekin egindako osagarri bat, jakina. Baina horren atzetik dagoen lan guztia da garrantzitsua, norberak barrutik egin beharreko lana.

Aipatu duzu emakume batzuek inolako sintomarik barik bizi dutela bizi etapa hau.

Bai, hala da. Emakume hori ondo sentitzen bada, seguruenik badabil zaintza edo bizi estilo osasuntsua egiten. Naturekin konektatuta bizitzea baino ez da behar, nire ustez. Zaintza osasuntsua denok egin beharreko kontua dela uste dut.

Estigma eta ezjakintasun handia dago menopausiaren inguruan. Zeintzuk dira dauden mito nagusiak?

Aurretik esan dugun moduan, emakume zaharrei gertatzen zaien kontua dela pentsatzea. Horixe da mito nagusia. 40 bat urterekin dagoeneko aldaketa asko gertatzen hasi direla konturatzerakoan, emakume askok uste dute ezin daitekeela izan menopausiaren bidean egotearen sintoma. Baina izan liteke, ja-

kina. Horrek bakarrik beldurra sortzen du, ezjakintasunak eragindako beldurra. Izan ere, uste dugu menopausia 55 urtetik gora gertatzen den kontua dela. Eta ez da horrela. 35-40 urterekin aldaketa asko sumatzen hasten dira. Berrogeita gutxi urterekin ziklo menstrualak galtzen duten emakume asko daude.

Bizitzaren etapa honetaz berba egitea lagungarria izaten da?

Bai, noski. Konturatzen zarenean inguruko emakumei zer

gertatzen zaien, askotan konturatzen zara uste baino ohikoagoa dela. Agian prozesu horretan zaudela konturatu zaitezke. Hitz egiteak asko laguntzen du, gauzak kontatzeak.

Bizi etapa hau emakumearen ahalduzko lotzen duzu.

Klimatorioa emakumearen ja-kinduria, maestria eta ahalduztzea dakartzen bizi etapa da. Norberak bere barruan dakarrena ateratzeko eta aurrera eramateko etapa. Ez gure ingurukoek (lagunek, familiak, bikotekideak, umeek...) eramatekoa. Guk geuk zer nahi dugu? Zein da gure pasioa? Hori guztia azaleratu beharreko bizi etapa da, eta horrek ahalduztzea ekarriko du. Pentsa zer-nolako ahalduztzea dakarren norbere buruarekin, norbere barruarekin, konektatuta bizitzeak.

"EZ DA GAUZA FISIKO EDO FISILOGIKO BAT BAKARRIK. ALDAGAI PERTSONAL BATZUK ERE SARTZEN DIRA"

AZAROAK 25

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroak 10, Igandea, 17:00-19:00

Zinema: "Te doy mis ojos" Kontzejuzarrean.
12 urteik aurrera
☎ Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

Azaroak 22, ostirala, 17:30-19:30

Genero indarkeriari buruzko tailerra
eskulaneekin: "Ez nazazu hainbeste maila,
maila nazazu hobeto" Kontzejuzarrean
☎ Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

Azaroak 24, igandea, 12:15-14:15

Feminismo intersektionalari buruzko film
laburren jaialdia Kontzejuzarrean.
Gai: Emakumea eta diborsitate funtzionala
☎ Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

Azaroak 25, astelehena - 12:00etan

Kontzentrazioa frontalko aldapan:

- Eskolako umeen leloak inakumiko dira eta amaizteko "indarkeriaren kontrako albestia" abestuko da.
- Adierazpen instituzionalaren inakumeta.

☎ Antolatzailea: Berezitasun Kontseilua

Abenduak 1, igandea - 12:15ean

Bakarrizketa: Magma Mia. Beatriz Egizabal

- 16 urteik aurrera
- Hizkuntza: Euskara
- Kontzejuzarra

☎ Antolatzailea: Udala



HAPO DURANGO

1_ Zure ustez, zergatik da garrantzitsua HAPOa?

2_ Zer iritzi orokor daukazu plana egiteko onartutako irizpide eta helburu orokorre buruz?

3_ Plan Orokor berriak zer helburu bete behar ditu?

4_ Nola ekin beharko lioke HAPOak gure udalerriko ingurumenaren kontserbazioari eta babesari eta garapen iraunkorrari?

5_ Mugikortasun jasagarriko zer neurri mota ezar ditzake HAPOak?

6_ Nola ekin beharko lioke HAPOak gure udalerriko kultura- eta arkitektura-ondarea zaintzeari eta balioa emateari?

7_ Zer estrategia proposatuko zenuke HAPOak planifikatutako hiri-garapenean berdeguneak eta jolas-eremuak integratzea sustatzeko?

8_ Zure ustez, eraikuntza berrietan energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko neurriak jaso beharko litzuke HAPOak?

9_ Zure ustez, zer zerbitzu edo ekipamendu jaso beharko litzuke HAPO berriak?

10_ Zure ustez, nolakoa izan beharko luke HAPO berrian aurreikusitako bizitegi- hazkundeak? HAPOak lagundu lezake etxebizitza eskuragarria eskuratzen?

11_ Zure ustez, HAPO berrian jarduera ekonomikoetarako espazioak gorde behar dira?

12_ Zer irizpide nabarmenduko zenituzke edo zer ekintza iradokiko zenituzke hirigintza-plangintza orekatua bermatzeko, aurreko beharrei erantzuteko, baina baliabide naturalen gehiegizko ustiapena eta ingurunearen degradazioa saihesteko?

1 Herritarrek lurraldea, erabilerak eta intentsitateak nola antolatuta erabakitzeko erabiltzen duten hirigintza-dokumentua da; hiriguneetako eta landa-eremuetako espazioak planifikatu eta antolatzen ditu, eta zer egin daitekeen eta non egin daitekeen ezartzen du: etxebizitzak, industria, berdeguneak, kirol-ekipamenduak, etab.

2 Aurreko gobernu-taldeak dokumentua onartu zuen Batzordean eta Osoko Bilkuran aurkeztu gabe, oposizioaren ezagutzarik eta ekarpenik gabe. 37 iradokizun jaso zituen. EAJri onartutako proposamenak hauek dira: erabilera sanitarioa ezartzea (Bereizmen Handiko Osasun Zentroa); kirol-eremua handitzea; jarduera ekonomikoetarako eta irakaskuntzarako espazio berria; kultur eta asistentzia-gunea; azpiegitura berdea, eta abar.

3 Hirigintza-politika ororen helburua pertsona guzti bizi-kalitatea hobetzea da, berdintasun-, irisgarritasun- eta jasagarritasun-baldintzak sustatuz, baita hirigunearen eta naturalaren arteko oreka ere. Durango bat guztiontzat.

4 Ingurune naturala errespetatuz eta artifizializatu gabeko lurzoruetan garapen berriak saihestuz, udalerri konpaktu eta trinko bat planifikatuz.

5 Hiri-espazioa planifikatuz mugikortasun segurua eta jasagarria bermatzeko, oinezkoa eta bizikleta izanik mugikortasunaren eragile nagusiak, ibilgailuaren aurretik. Eta trenaren eta autobusaren arteko konexioa eta erabilera sustatuz.

6 Memoria kultural eta arkitektonikoak ohitura, balio kulturala eta herriarenganako errotzea bultzatzen ditu eta komunitatea sortzen du. Zaindu beharreko eraikinen eta elementuen katalogoa berrikusiko da.

7 Hiri-berroneratzeak aukera ematen du erabiltzen ez diren espazioak aisialdirako gune berri bihurtzeko, sare berdea garatuz, tren-geltokiko lurraren erdiko espazioa barne.

8 Eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta energia berriztagarriak ekoizteko instalazioak sartzeko estrategiak jaso behar ditu: estalkiak, fatxadak, kargagailu elektrikoak...

9 Tabirako kirol-eremua handitzea; Bereizmen Handiko Osasun Zentro Publikoa (trenbideko lurrak); laguntza-zentroa; Kultur Etxea (Pinondo); Musika Eskola handitzea; adinekoentzako zentro berria; jarduera ekonomikoetarako eta irakaskuntzarako gunea (Fundifés).

10 Biztanleriaren hazkundearen joerak bizitegi-hazkunderako politikak berrikustera behartzen du, etxebizitza eskuratzea, alokairua sustatzea eta etxebizitza publikoaren sustapena (soziala eta tasatua) bermatu ahal izateko. HAPO errealista baten alde egiten dugu, etxebizitza eskuragarria iraunkortasun-irizpideen arabera gaitzea erraztuko duena.

11 Bai, ez dago etorkizunik jarduera ekonomikorik gabe. Herritarren bizi-kalitatea hobetzen du, lan egiteko lekualdaketak saihestuz, ekonomia zirkularra eta jasagarritasuna sustatzen ditu. Eta diru-sarrerak sortzen ditu udal-zerbitzuak mantentzeko eta hobetzeko.

12 Erabileren eta intentsitateen plangintza orekatua, udalerrira kohesionatuz, erdiguneak trinkotuz eta ingurune naturala zainduduz. Eta erabiltzen ez diren edo degradatuta dauden espazioak berreraikitzea eta birnaturalizatzea, hiri-espazioa hobetzeko.

ehbildu

1 HAPOaren prozesuak aukera ematen du zelako Durango nahi dugun pentsatzeko. Prozesu honetan definitzen da zenbat etxebizitza eta zelakoak eraikiko diren. Definitzen dira, baita ere, industriaguneak, azpiegiturak edo ekipamenduak (kirolerako, hezkuntzarako, parkeak). Ezinbestekoa da 10-15 urte barru zelako herria nahi dugun pentsatzea. Klima larrialdia, etxebizitza arazoak edo zaintza krisiak erronka handiak jarri dizkigu parez pare, eta 20 urte daramagu Durango Plan Orokorrik gabe.

2 Plan Orokor berriaren helburuen xede nagusia desio den hiri-eredua lortzeko parametro orokorrak zehaztea da, eta irizpideek jarritako helburu horri erantzuten diote. Eguzkitzagoiena industriagunea garatzea, auzoak birgaitzea, gune berdeak handitzea edo mugikortasunean bizikletaren sustapena dira jartzen diren helburu konkretuetako batzuk. Zeharlerro moduan irisgarritasuna, osasuna eta genero-ikuspegia.

3 EH Bildutik planteatzen dugun hiri-eredua hiru ardatzetan oinarritzen da.

Durango bizigarria. Ongi bizitzeko herri bat, etxebizitza eskubidea bermatu eta krisi klimatikoaren aurrean Durango berdeago baterantz pausoak eman.

Durango bizia. Durangok elkartegintza oso sendoa dauka, ehundaka elkarte eta eragilerekin. Horiei aitorza egin, kultur ekosistema eta auzoetako metabolismoa zaindu eta komertzio txikia biziberritu.

Denona izango den Durango. Feminismotik, zaintzaren krisiari aterabideak topatu. Inor atzean utziko ez duen herria, bere jatorria, hizkuntza edo aniztasun funtzionala dena delakoa izanda.

4 Oraindik urbanizatu gabe dauden inguru naturalak kontserbatu eta babestu behar dira. Bestalde, hiriaren aspektu guztietan jasagarritasuna zeharlerroa izan behar da.

5 Hirigunean pertsonendako espazioak irabazi behar dira, autoarentzat kanpoaldeko parking disuasorioak planteatuz. Hiriarteko mugikortasunerako garraio publikoa hobetu behar da, eta hiri barruko mugikortasunean bizikleta sustatu.

6 Durangoko kultur ondarearen babes mailak definituz eta kultur ondarearen katalogoa berrikusiz.

7 Trenaren lursailak berreskuratu behar dira. Geltokia zegoen inguruan birika berdea eginez, ahalik eta parke berde handiena izateko. Eta trenaren tratatua bide berde bat sortuz, basoekin lotuko dena.

8 Eraikin berrietan energia eskaria murrizteko neurriak jarri behar dira, eta energia berriztagarriak txertatzeko aukerak aztertu. Bestalde, trantsizio energetikoan sartzeko komunitate energetikoen papera klabea da.

9 Aisialdirako parkeak eta berdeguneak, arnaguneak eta aire zabaleko kirolguneak.

10 Durangok, 30.000 biztanlerekin tamaina egokia dauka eta beraz hazkundeak moderatua izan beharko luke, hiri lurren birgaitzean eta inguru naturalaren kontserbazioan oinarritua. Alokairurako etxebizitza babestua sustatu behar da, etxebizitza publiko edo kooperatiboa eginez eta etxe hutsak mobilizatuz.

11 Hiriaren garapenerako garrantzitsua da Eguzkitza industriagunearen garapena, jarduera ekonomiko berriak Durangora erakartzeko.

12 Etxebizitza edo ekipamendu berriak eremu urbanoan soilik egitea planteatzen dugu, inguru naturalak kontserbatuz eta degradatutako lursailak birnaturalizatuz.



1_ Etorkizunean nahi dugun Durango diseinatzeko tresna oinarritzkoa da, etorkizunean egingo den garapen urbanistiko guztiaren oinarria.

2_ Irizpideak eta helburuak Durangoko behar nagusietan oinarritzen dira, garrantzitsuena azken dokumentuan jasotzea izango da.

3_ Udallerri atsegin izatea bilatu behar du, bizi-kalitate onarekin bizi, lan egin eta gozatu ahal izateko. Horretarako, etxebizitza eskuragarri sustatu behar du, espazio libreak zabaltzearekin eta industria-garapenarekin batera, eta mugikortasunaren plangintza ona egin behar du. Eskualdeko hiriburutza indartzea ere oso helburu garrantzitsua izan behar da, horri esker gainerako irizpide eta helburu asko garatu ahal izango baitira.

5_ 2025ean Mugikortasun Plana berri behar da, pista asko emango dizkiguna. Ibilgailu motordunen alferrikako erabilera murrizteko eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko, intermodala eta txandakako aparkaleku berriak garatu behar dira. Oinezkoentzako guneak jartzen eta bizikleta sustatzen jarraitu behar da, biak seguruak izan daitezten eta lehentasuna izan dezaten. Hirigintza-garapenetan, batez ere zentroan, beharrezkoa da alde aurreko azterlan bat egitea garapen horrek mugikortasunari nola eragingo dion jakiteko.

6_ Gure ustez, gure ondare kulturalaren eta arkitektonikoaren azterketa berrikusi eta babestu egin behar litzateke

7_ Sare berdea dago, osatu eta adar gehiago garatu behar dituen. Trenbideko BEPBaren berdegunea egin behar da, trenaren trazaduraren ondoan. Etorkizuneko hirigintza-garapenek berdeguneen edo gune libreen alde egin beharko dute.

8_ Bai, argi dago sartu egin behar dituela. Krisi klimatikoak bizi dugu, eta, beraz, beharrezkoa da energiaren erabilera arduratsua eta autokontsumoa sustatzea. Badago murrizketa horretarako araudia, eta, beraz, eraikuntza berrietan bete egin behar da.

9_ Durangok, argi eta garbi, kirol-ekipamendu gehiago eta adinekoentzako instalazio berriak behar ditu, zentro berri bat, eta kulturarako gune bat, Kultur etxea, eta eskualde-burua indartuko duten udalaz gaindiko ekipamendua. Inguruko auzoetan ekipamendu txikiak, kontuan hartu beharko dira.

10_ Aurreikusitako bizitegi-hazkundera eduki beharko du. Etxebizitza hutsak alokairura ateratzea sustatuz. Etxebizitza berriek lagundu egin behar dute etxebizitza horiek eskuragarri izan daitezten, bai alokairu sozialeko etxebizitzekin, bai prezio tasatuak eta eskuragarri dituzten etxebizitzekin. Eta lokalak kalean bertan bizitegi-erabilerara aldatzeko aukera ematea, hain komertzialak ez diren eremuetan. Hirigintza-garapen osoan kontuan hartu behar da genero-ikuspegia.

11_ Jarduera ekonomikoak oso zeregin garrantzitsua du, enplegua sortzeaz gain, udallerriarentzako diru-sarrerak dakartzalako, zerbitzuak hobetu ahal izateko eta eskualdeko hiriburutza indartzen duelako. Jarduera ekonomiko horiek punta-puntakoak izan behar dute, eta kalitatezko lana sortu behar dute.



1_ HAPO da etorkizuneko Durangorako proiektu politikoa jasotzen duen oinarritzko dokumentua. Orokorrean, hirigintza-garapenaren helburuak markatzen ditu. Funtsezkoa da aurreikuspen on bat izatea etorkizunean berdegune, zerbitzu publiko, parke eta ezaguri nahikoak izateko. 2005ean egindako planifikazio txarrak lurzoru asko bahituta utzi dizkigu egin ez diren garapenetarako, eta zerbitzu publikoen gabezia nabarmena.

2_ Nahiz eta legeak behartzen gaituen hazkunderaren zati handi bat etxebizitzara bideratzera, irizpide eta helburu orokorrak egokiak dira. Hazkunde kontrolatuko edo hazkunderik handieneko ereduaren artean aukeratzeak markatuko ditu erronkak.

3_ Ingurumenari, zerbitzuei eta etxebizitzari buruzkoak:

- Energia berriztagarriak sustatzeko jarduerak
- Airearen kalitatea hobetzea
- Alokairu sozialeko etxebizitzak sustatzea
- Lurzoru berrien artifizializazioa mugatzea
- Ekipamendu-sare orekatua lortzea

4_ Garapen iraunkorrek zeharkakoa izan behar du. Gero eta sarriago ikusten ditugu higiezin burbuilaren legeek bultzatutako kontrol gabeko hazkunderaren emaitzak.

5_ Pertsonak lehenesteko neurriak, oinezkoentzako espazioa handituz eta bizikleten mugikortasuna sustatuz.

6_ Durangok ondare handia du, eta HAPOk ondare hori gorde eta balioetsi behar du, baita garapen ekonomikoaren iturri gisa ere.

7_ Estazioko lurak ahalik eta gehien aprobetxatu behar ditugu parke berde handi baterako. Dagoeneko urbanizatuta dauden lursailtako berdeguneak ere berreskuratu behar dira.

8_ Kontsumoak murriztea da garapen jasangarriaren helburuak betetzeko lehen neurria.

9_ Zerbitzuak garatzeko lurzoruak handitzea eta zerbitzu publikoak auzoetara hurbiltzea. Adibidez, gizarte-etxeen sare baten bidez.

10_ Bizitegi-hazkundera ondo kudeatu behar da, garapen jasangarriaren helburuak betetzeko. HAPOk etxebizitza eskuratzen lagun dezake. Baina garrantzitsuagoa da prezioak erregulatzen dituzten edo alokairuko etxebizitza tasatua sustatzen duten arauak sortzea. Etxebizitza tasatuen egungo ordenantza aldatu behar da, etxebizitza sozialak libreen prezio berean saltzeko aukera ematen baitie sustatzaileei.

11_ Hiriaren garapenerako garrantzitsua da Eguzkitza industriagunearen garapena, jarduera ekonomiko berriak Durangora erakartzeko.

12_ Lehentasuna pertsonen ongizate fisiko, sozial eta ekonomikoak izan behar du. Horretarako, irtenbideak bilatu behar dira:

- Garapen iraunkorra, batez ere berdeguneak zabalduz eta mugikortasun iraunkorra lehenetsiz.
- Zerbitzu publikoetarako behar diren baliabideak lortzea.
- Bizitoki-beharrak asetzea.
- Garapen ekonomikoak sustatzea.



1_ HAPO bat izatea beharrezkoa da gure bizilagunen arazo eta kezka nagusiei erantzun dieten helburuak planifikatu eta lortzeko, eta, aldi berean, mantendu beharreko arau eta gidalero batzuk finkatzen ditu, egonkortasuna emanez enplegua sortuko duten inbertsioak egiteko, ahalik eta azpiegitura onenak gauzatzeke, etxebizitza lortzeko eta durangarrei eguneroko bizitzaren kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren esparru juridiko eta arautzaileari.

2_ Legezkoak dira, egokiak izan daitezke, baina adostasunik ez izateak aurrerapena mantsotu dezake. Asmo handiagoko helburuak eta epe laburragoak markatu behar ditu.

3_ Etxebizitza: Salmentako zein alokairuko eskaintza zabaltzea, Durangoko familiei eta gazteei eskuragarritasun handiagoa emateko eta, horrela, haiek alde egin ez dezaten. Kalitatezko enplegua sortzen duten inbertsioak eta enpresak erakartzea. Garraioa eta mugikortasuna: Durango hobeto konektatu EAEko hiru hiriburuekin eta gure inguruko udallerriekin, eta barruko joan-etorriak hobetu garraio publiko kolektiboarekin. Ingurumena: Airearen kalitatea hobetzen dela bermatzea. Ondare historikoak, kulturak, hezkuntzak, aisialdiak eta kirolak lehentasunak izan behar dute esku-hartze eta erregulazio guztietan.

4_ Airearen kalitatea hobetzeko neurriei aurre eginez, Durangoko eta gure inguruko erakunde eta industria guztiekin lankidetzan. Barruko garraio publiko bultzatzea, Durangoko hiri-autoarekin. Disuasio-aparkalekuak, hirigunean dagoen bidea murrizten dutenak, sarbide arina ahalbidetzen dutenak eta aparkatzeko ibilbideak saihesten dituztenak.

5_ Pertsonak lehenesteko neurriak, oinezkoentzako espazioa handituz eta bizikleten mugikortasuna sustatuz.

6_ Balio kultural eta historikoa duten hiri-elementuen egoeraren kontrol eta jarraipen periodikoa. Eraikin historikoak zaharberritzea eta erabiltzea. Baita erabilerak aldatzea ere, kanpoko egitura mantenduz.

7_ Egungo berdeguneak eta parkeak zaintzea. Eremita eta lorategi gehiago egon daitezten bultzatzea. Lorategi bertikalak fatxadetan

8_ Gaur egungo teknologiak asko aurreratu behar du, behar bezala hornitzeko eraginkorrak izan daitezkeen sorkuntza-elementuak ezartzeko eguzki gutxi baitago.

9_ Erabilera libreko kirol-gune berriak Erizainen fakultatea duen eskualdeko ospitalea Paradore Nazionalea Durangon. Paradorerik gabeko probintzia bakarra gara. TAV-AVE estazioa Durangon edo gure inguruan Hiri-autobuten zerbitzua, Durangobu Disuasio-aparkalekuen sarea

10_ Bai, familien egungo beharretara egokitutako etxebizitzaren eskaintza handituz, prezioa murriztuko da ziurtasun osoz.

11_ Zalantzarik gabe, behar-beharrezkoa da enpresak erakartzea eta enplegua sortzen duten negozioen sorrera bultzatzea. Durango udallerri erakargarria da enplegu zuzena sortzen duten eta, aldi berean, bere ingurunean industria subsidiarioak sortzen duten enpresa-proiektu traktore indartsuentzat, eta zeharkako enplegu ugari sortzen du enpresa txiki berrietan edo egungo enpresen merkatua zabalduz.

Aritz Maldonado DURANGO

Begin lanagaz jazz zale askoren radarrean jartzea lortu eta gero, lau urteren ondoren *Bloom* heldu da, Irati Bilbaoren (Durango, 1992) bigarren estudioko lana. Musikari durangarrak Mikel Nuñezen —hau ere durangarra— laguntza izan du pianoan, Fran Serranorena kontrabaxuan eta Aitor Bravorena baterian; horiez gainera, Alvaro Zarzuelak, Xabier Arriolak eta Haizea Martiartuk ere parte hartu dute grabazioan. Zortzi abestik osatzen dute lana, eta horietariko lau Bilbaoren konposizioak dira.

Lau urteren ondoren, disko berria kaleratu duzu.

Denbora apur bat behar izan dut. Kanpotik begiratuta, beharbada ez zen igarriko denbora tarte honetan ez garelako gelditu ere egin, baina niretzat oso aldaketa handia egon da. Buelta eman behar izan diot proiektuari, hasieran ikaskideekin egitekoa eta garatzekoa zelako. Musikenen ikaslea nintzen, baina pandemiagaz eten egin zen, kontaktua galdu genuen, ezin genuen proiektua bera gauzatu, eta hausnartu eta erabakia hartu behar izan nuen: proiektua amaitutzat eman edo beste musikari batzuekin aurrera egin. Nire dolua igaro eta gero, berriro hasi nintzen idazten eta konposatzen, eta batez ere Fran eta Mikel proiektuan sartu zirenean berreskuratu nuen ilusio hori.

Bigarren diskoa garrantzitsua izaten da musikarien ibilbidean. Igarri duzu presiorik?

Disko honegaz mila buelta eman dizkiet gauzei. Nire kasuan, gainera, lehenengo grabatu nuenean ez neukan argi publikatuko nuen ala ez. Estudiara joateko aukera irten zelako grabatu genuen, emaitzen arabera erabakitzeko asmoz. Lehenengo lan haregaz oso presio gutxi izan nuen, oso aske sentitu nintzen, eta aurrekaririk barik heldu naiz honetara. Baina bigarren disko hau grabatzekoan buelta asko eman dizkiet gauza guztiei, eta esango nuke igarri dudala presioa, neurri handi batean nik neuk eragindakoa neure buruari. Azken urte bietan asko jo dugu, Getxoko Jazzaldian eta Lugoko jazz jaialdian, adibidez, eta jazz plaza garrantzitsuak direlako edo, komunikabide askok berreskuratu dute *Begin*, eta, nolabait

"Jazz klasikoak pisu gutxiago du disko honetan"

MUSIKA Irati Bilbao musikari durangarrak 'Bloom' diskoa kaleratu du oraintsu, bere ibilbideko bigarrena; lurretan aurkeztuko du gaur, zuzenean, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean, lauko formatuan; jazz doinu klasikoei garaikideagoak gehitu dizkie



Irati Bilbao. PABLO BUENO

esateko, horrek interes bat piztu du nire izenean, eta behin estudiara sartuta banekien ezin nuela edozelan grabatu.

Jazz klasikoari ikutu garaikideagoak ere eman dizkiozu.

Lotura du aurreko lanagaz, baina jazz klasikoak pisu gutxiago du lan honetan; estandar klasiko bi baino ez daude. Nire konposizioek pisu gehiago hartu dute; oraingoan lau dira nireak. Nire konposizioak ez dira hain klasikoak; swing klasikoaren lengoian nago erosen, baina nik konposatzen dudanean garaikideagoak dira. Badut jazz klasikotik, jakina, baina gaur egungo konposizioek ere pizten didate interesa, eta horrek zuzenean eragiten dit konposatzerakoan. Hortaz, disko honetan badago klasikoentzako esparru bat, baina modernoagoa, garaikideagoa eta pertsonalagoa dela esango nuke. Nire letrak daude, nire melodiak ere bai, eta horrek pisu handia du.

Zuretik gehiago du lan honek, beraz. Urte hauetan hainbat proiektutan aritzeak lagundu egin dizu horretan?

Proiektu horiek aurrera egiten dutela ikustea konfiantza hartzeko modu bat ere bada. Adibidez, Sarrabeten letrak-eta

"KONTZIENTE NAIZ NIRE MUSIKA GENEROAN EZ DUDALA INOIZ SANTIAGO BERNABEU BETEKO

egiten aritu naiz eta horrek konfiantza ematen dizu, zure bakarkako proiektuetan aritzeaz gainera beste musikari batzuekin lan egin dezakezula ikusteak. Uste dut testuinguruak ere eragin duela, lehenengo diskoagaz inguru akademiko batean nengoan, eta oso inspiratuta, egunero musikariz eta musikaz inguratua nengoelako, baina, aldi berean, lotuago nengoan momentu horretan ikasten gengtzen lengoia musikalerara. Honegaz, ostera, bizitza oso desberdina da kontserbatoriotik kanpora, eta mila kontu gehiago dut buruan; gauza batzuk irabazi ditut eta beste batzuk galdu. Abestiak pertsonalagoak dira orain, intimistagoak, eta neuri buruz berba gehiago egiten dut oraingoan. Eta zintzoa ere bada. Azken finean, lehenengo lana gehiago irten zen dibertimendutik. Era profesional batean grabatzeko aukera nuen, eta egin egin nuen. Konposizio propio bi sartu nituen, baina ez nuen ardurarik sentitu artista legez. Izan zezakeen oihartzun bat, edo ez. Orain, ostera, nigan bilakaera bat egon dela ikusten dut, abeslari eta konposatzaile modura. Nire bidea eraikitzen joan naiz, eta hau beste puntu bat da bide horretan.


Aurrekoagaz legez, Mecca estudioetan grabatu eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxeagaz kaleratu duzu.

Ez da ez nagoela pozik eurekin, ezta gutxiago ere, baina esan beharra dago Gaztelupeko Hotsak Euskal Herriko jazz zigilu bakarra dela (barrez). Beraz, aukera bi daude: edo autoekoitzi edo eurekin atera. Baina, egia esan, oso pozik nago. Zigilu txiki bat da eta Ubanek eta 'Xarra'-k euren maitasun gutziagaz kudeatzen dute. Ni kontziente naiz musika minoritario bat egiten dudala; nire musika generoan ez dut inoiz Santiago Bernabeu beteko, baina eskertzen dut familia moduko bat izatea nire alboan, nire taldean dauden musikari, manager edo zigilu edo estudiokoak. Hartu-eman gertukoa izatea garrantzitsua da niretzat, hurbilekoak sentitzea. Mecca, adibidez, punta-puntako estudioa da, Euskal Herriko onenetarikoak, eta Igorregaz eta Mikelegaz dudant hartu-eman oso gertukoa da. Hirugarrenez grabatu dut han, eta tratua oso profesionala da beti, eta oso gertukoa da aldi berean.

GREMIOEN GIDA

Zurgintza	Zurgintza	Iturgintza	Iturgintza
<p>leike Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia</p> <p>NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK</p>  <p>www.leike.eus Antso Estegiz, 3 Durango Tlf: 94 681 72 29</p>	<p>ATERPE ARROTZA</p> <p>EGUR ERAIKUNTZAK TEILATU ETA BARRUKO LANAK</p>  <p>Asier Abendibar 635 74 84 65 www.carpinteriaaterpe.com</p>	<p>Ubide iturgintza</p> <p>Iturgintza, gasa eta berokuntza</p> <p>946 030 506 / 625 702 208 ubide@euskalnet.net 48200 DURANGO 188 PK.</p>	<p>UNAI GARAY ITURGINTZA BEROGINTZA GASA</p> <p>INSTALATZAILE BAIMENDUA</p> <p>659 673 790 unaigaray@yahoo.es</p>

Elektrizitatea	Iturgintza	Dekorazioa
<p> ELEKTRIZITATEA</p> <p></p> <p>ELECTRICIDAD JON</p> <p>622 684 284 electricidadjon@outlook.es</p>	<p>Mallabiena</p> <p>M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.</p> <p></p> <p>Mallabiena industrigunea, 6 48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862 mallabiena@mallabiena.com</p>	<p>JAIObarnizatuak</p> <p>Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu</p> <p>Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421 info@jaiobarnizatuak.com www.jaiobarnizatuak.com</p>



200 ekitaldi egongo dira 59. Durangoko Azokan

DURANGOKO AZOKA 933 nobedade eta 200 ekitaldi egongo dira Durangoko Azokan; kultur ekimenaren 59. edizioa da aurten egingo dena; "Deialdi berezia egin gura diegu zaleei, kultur sistema osasuntsu baterako ezinbestekoak direlako", azaldu dute

Aritz Maldonado DURANGO

Asteon aurkeztu dute 59. Durangoko Azokako egitaraua. 933 nobedade eta 200 ekitaldi egongo dira. Durangoko Azoka abenduaren 5etik 8ra bitartean izango da aurten, ohikoa dena baino egun bat gutxiago. "Uztaren lagin ederra erakutsiko dugu aurten ere, Azokak egun bat gutxiago iraungo duen arren", azaldu zuen aurkezpenean Beñat Gaztelurrutia Gerediagako kudeatzaileak. Aurkezpenean alboan izan zituen guneetako arduradunak: Izaskun Ellakuriaga (Talaia), Irati Agorria (Irudienea), Diana Franco (Kabia), Ixasne Arabiourrutia (Saguganbara), Maider Larrañaga (Szenatokia) eta Aitor Agiriano (Azoka telebista). "2007an antolatatu zen Ahotsenea lehenengoz, eta ordutik genero arrakala murrizten ahalegindu gara. Aurten, 50 liburu eta 34 musika lan aurkeztuko dira; literatura aldetik, emakumeenak dira gehie-



59. Durangoko Azokaren aurkezpena. TXELU ANGOITIA / GEREDIAGA ELKARTEA

nak, eta musika aldetik ere talde erdietan baino gehiagotan dago emakume bat, gutxienez", laburtu du Gotzon Barandiaran Ahotseneako arduradunak.

Durangoko Azoka abenduaren 5ean hasiko da, Ikasle Goizagaz. Biharamunean, Gazte Eztanda egingo dute. Eguneko egitarauaz

gainera, karpa 02:00ak arte egongo da zabalik Landako plazan: Naxker, Xaukena Xauk eta Durangaldeko Nekktar taldeek joko dute, besteak beste. Ordutegiari dagokionez, Azokak iazko ereduari eutsiko dio: 10:30etik 20:00etara egongo da zabalik.



Damaris Pan, eskuman. BMW GROUP

Damaris Pan mallabitarrek BMW Saria irabazi du

MARRAZKETA Panek 'All monsters are human II' lanagaz irabazi du Pinturaren BMW Sariaren 39. edizioa

A. M. MALLABIA

Urteekin, Espainiako saririk entzutetsuenetarikoa bilakatu da Pinturaren BMW Saria. Orain ia 40 urte sortu zenetik gaur egunera, 27.000 artistak baino gehiagok parte hartu dute bertan; aurtengo edizioan, 1.700 artistak baino gehiagok. Horien artean, Damaris Panen *All monsters are human II* lana saritu du epaimahaiak (besteak beste, Miguel Zugaza Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendaria). Artista mallabitarrek 25.000 euroko diru saria jasoko du, aitortzaz gainera. Epaimahaiak onberatasuna-

ren eta basakeriaren arteko lotura sakontzeagaitik saritu du artista mallabitarra. "Elementuen arteko tentsioak berehalako in-paktu bisuala eragiten du", azaldu dute.

Pinturaren BMW Saria nazioartean erreferentzia dela adierazi zuten Madrilgo Teatro Realen egindako sari banaketa ekitaldian. "39 herrialdeko artistek parte hartu dute sarian. Hau erakusleio globala da, gure mugetatik haratago doana", azaldu zuen Manuel Terroba BMW taldearen Espainiako eta Portugalgo presidentek.



GAI LIBREAN

MIREN ERDOIZA MUJICA BEHARGINA

Etxea

Armairuan artilezko jertseei eta algoedoizko kamisetsei lekua egin nahian, udazkena bete-betean sartu da etxera. Astelehenetik barikurako arratsaldeak ilundu eta hoztu diren garaian, herriko zinekluba martxan jarri du Ainhoak azaroan. "Etxea" gaiari helduta, *Amama*-k baserri mundua 30.000 biztanle inguruko herrira hurbildu du, eta sukaldeari, eskuei eta egurrari merezi duten lekua eman die filmak. Eguazten buruzuri batez, garaiko sutondoak nola, Zugazako pantailak ere erakarri gaitu hamarnaka lagun; eta guk, eguazten buruzuriz terrazatik atera eta aretoan sartzeak betetzen gaituen zaleak, arnas apur bat hartu dugu herrian.

Izan ere, itota dabil aspaldian Durango. Euskara desagertzetik bizirautetik baino hurbilago dagoen garaian, iaztik hona herriko jaietako kultur eskaintza nabarmen erdaldundu dela iragarri dute hedabideek. Horrez gain, nabaria izan da kaleari, oholtzari eta

plazari zerion gizon usaina. Martxa honetan, pailazoek erdaraz eingo diote umeei, kazetariak *Pachicochu* idatziko dute egunkarrietan, eta etxetik alkondara zuria zapi urdinarekin jantzita aterako gara guztiok, eta momentuak eskatzen duen *outfit*arekin irauliko dugu dena delakoa.

Igaro den zapatuan publizitate erdaldunarekin jantzitako musika festivalak konkistatu zuen herria: marketing espainola garaile, euskal kulturaren eszenan. Badirudi auzolanetik, euskaraz, emakumeon ahotsarekin eta zapalduen alde urteetan zehar antolatutako jaialdiaren mantapean edozeinek har dezakeela ostatu. Izan ere, milaka ikuslek, nagusiki espainolez kantatzen zuten gizonez betetako oholtzari begira eman zuten eguna Landako Gunean.

Aste honetan jakinarazi dute San Agustin Kultur Gunean hogeita sei urtez antzokian lanean ibili den enpresak lizitazioa galdu, eta askoz aurrekontu baxua-

goarekin aurkeztutako enpresa baten esku gelditu dela etxea. Beste behin, argi gelditu da kapitalak agintzen duen garaian, langileen baldintzek, pertsonen prestakuntzak eta prestutasunak, urte luzez erakutsitako guztiak, herria eta herritarrak ezagutzeak, kulturgingintzarekiko sentsibilitatea eta ardura adierazteak, ez duela ezer balio.

Gu, faxisten zakilen menpe gauden dohakabeak, diru gosez etxeak irauli eta erosten dituzten agintarien garretan harrapatuta gaudenak, Miren Gaztañaga, Nagore Aranburu, Fermin Muguruza eta Aiora Rementeriarri esker epelduko gara orain. Edo agian, sugarra inoiz itzal ez dadin erreko ditugu pantailak, eszenatokiak eta bafleak. Baserrietako amamek nola, pasioz eta konbikzioz gure etxeak zainduko ditugu beti, Santa Anako Plazan, Martuteneko patioan eta zinema aretoetan. Beste guztia hondarra besterik ez da, eta gurean, garrrik pizten ez duenak ez dauka lekurik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 22

ABADIÑO Ipuin kontalaria

Doro Zorbaran.
Mediatekan, 17:00etan (4-8 urte).

ABADIÑO Bertsoak

Bertso afaria, Oihana Iguaranegaz eta Andoni Egañagaz.
Errekatxo elkartean, 21:00etan.

DURANGO Musika

Jam Session Jaialdia (Bartolome Ertzilla Musika Eskola).
Plateruenan, 20:30ean.

DURANGO Berbaldia

'El concierto: un tesoro a conocer... ¡y a defender!' (Hizlaria: Pedro Luis Uriarte, 1980tik 1984ra Ekonomia eta Ogasun sailburua izandakoa).
Arrupe aretoan, 19:00etan.

IURRETA Musikaldia

Irati Bilbao, 'Bloom' lanagaz.
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

ZALDIBAR Dantza Bertikala

'Geure(R)a' (Harrobi).
Olazar pilotalekuan, 20:00etan.

ZORNOTZA Dantza

'Tierra de nadie' (Eva Guerrero).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZAPATUA 23

ABADIÑO Musika

Taberna Txiki Gauda: DJ Patry.
Isioturen lokalean, 20:00etatik aurrera.

BERRIZ VI. BHCK Jaialdia

Armarri, Boneflower, Eje, Gutter, Meiso, Revertt, Vibora, Worth It, Zikin.
Hiltegixe gaztetxean, 18:00etan.

DURANGO Jaialdia

Otamotzena Auzogunearen I. urtea.
Talo tailerra, ludoteka, artisautza azoka eta 2. eskuko azoka, 11:00etan.
Ludoteka, 16:00etan.
Pelma & Luis Seletorrek, 16:00etan.
Havana 537, 19:00etan.
Otamotzena parkean.

DURANGO Musika Hamabostaldia

Schubert laukotea eta Laia Masramon.
San Agustín kulturgunean, 19:00etan.

ELORRIO Jazz Blues Jaialdia

La Blues Company.
Ateneoan, 22:00etan.

IURRETA Irteera

Artxandara bizikleta irteera.
Iurretan, 09:00etan.

ZORNOTZA Ipuin Kontalaria

'Maite zaitudalako' (Ana Apika).
Zelaietako liburutegian, 12:00etan.

ZORNOTZA Antzerkia

'Lo único que verdaderamente quise toda la vida es ser delgada' (Butaca Zero).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

DOMEKA 24

ABADIÑO Bakarrizketa

'Tu tum platz' (Jon Plazaola).
Errota kultur etxean, 19:00etan.



ARTEDRAMAMA

ELORRIO Antzerkia

Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da *Miñan*, hark ahoz kontatua, Amets Arzallusek idatziz jasoa, eta Artedramak antzerkira egokitua.
Azaroak 22, barikua, Arriolan, 20:00etan.

ELORRIO Umeentzako antzerkia

'Atearen bestaldean' (Hika Teatro).
Arriola antzokian, 17:00etan.

IURRETA Irteera

Debara bizikleta irteera.
Iurretan, 09:00etan.

ZALDIBAR Azoka

XXV. Nekazari Azoka.
Euskal Herria kalean, 11:00etan.

MARTITZENA 26

DURANGO Topaketa birtuala

'Miedo. Viaje por un mundo que se resiste a ser gobernado por el odio'. Hizlaria: Patricia Simon, gatazka eta krisi humanitarioen berriemailea.
Elkartegian, 18:30ean

EGUAZTENA 27

DURANGO Giza Biblioteka

Mbaye Babacar, Andrea Noya, Abdoulaye Sarr eta Javi Julio.
Bizenta Mogel bibliotekan, 18:30ean.

ZORNOTZA Berbaldia

Aurretiazko borondateen agiria.
Nafarroa Zentroan, 17:00etan.

EGUENA 28

ABADIÑO Berbaldia

'Kulturgintza bihar: Nola sustatu kulturzaletasuna?'
Txanporta kultur etxean, 19:00etan.

ELORRIO Jazz Blues Jaialdia

Broken Salad.
Ateneoan, 21:00etan.

OTXANDIO Berbaldia

'Euskara-Xerpera, motxilan eramateko hiztegia'. Mirugain elkarte.
Kultur etxean, 19:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Dalia y el libro rojo
domeka 24: 17:00.

Kokon
eguztzena 27: 18:30.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Wicked

barikua 22: 18:00, 20:15.
zapatua 23: 17:15, 20:30.
domeka 24: 16:30, 19:30.
astelehena 25: 18:30.
martitzena 26: 18:30.
eguztzena 27: 19:00.

Raqa

barikua 22: 18:00, 21:00.
zapatua 23: 18:00, 20:30.
domeka 24: 17:15, 20:00.
astelehena 25: 18:00, 20:15.
martitzena 26: 18:00, 20:15.
eguztzena 27: 19:00.

Gladiator II

barikua 22: 20:15.
zapatua 23: 17:30, 20:30.
domeka 24: 17:15, 19:30.
astelehena 25: 18:30.
martitzena 26: 18:00, 20:15.
eguztzena 27: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

La habitación de al lado
domeka 24: 20:00.
astelehena 25: 20:00.


ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Verano en diciembre
domeka 24: 20:00.
astelehena 25: 20:15.

Liztor kapitaina
domeka 24: 17:00.

La virgen roja
eguztzena 28: 20:15.



50
PYM'S IDIOMAS
SINCE 1974

INGELES
IKASTAROK

IRAKASLE NATIBOAK
MATRIKULA DOAN

We prepare for

Cambridge

English Qualifications

pym@pymidiomas.com
www.pymidiomas.com

946 815 677 / 623 166 980 Moneta Torre SA, behe
48200 Durango



Las Bingueras
de Eurípides

Las niñas de Cadiz

Azaroak 24, igandea
19:00etan Antzerkia

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

San Agustín
KULTUR
GUINEA

"Mirandesen jokalaria eta pertsona lez hazten nabilela sentitzen dut"

FUTBOLA Unai Egiluz Arroyo (Durango, 2002) Bigarren Mailan jokatzeko dabil aurten, Mirandes taldean, Athleticetik utzita. Atzelari durangarra geroago eta gehiago jokatzeko dabil; azkenaldian baita titular ere hainbat partidutan, oso maila ona erakutsita

Joseba Derteano DURANGO

Unai Egiluz Lauaxeta Ikastolan hasi zen futboleko jokatzeko. Haur kategoriako eta kadeteetako urteak Durangoko Kulturalean eman zituen. Gazte mailatik aurrera, Athleticen dabil. Iaz talde nagusiagaz egin zuen denboraldiaurrea eta Errege Kopako partidu batean debutatu zuen. Aurten Mirandes taldean dabil, utzita. Hazten jarraitzea du helburu eta bide onetik doa. Irailean Albacete-ko kontra bigarren zatian debutatu zuenetik, hainbat bider titular jokatu du, hala nola Eibar, Cartagena, Tenerife eta Cadizen kontrako partiduetan.

Titular eta geroago eta gehiago jokatzeko. Errezetarik onena da konfiantza hartzeko?

Bai. Utzita doan jokalaria guztien helburu nagusia horixe da: geroago eta gehiago jokatzeko, konfiantza hartzea eta ahalik eta gehien ikastea. Egia esanda, geroago eta konfiantza handiagoa dut zelaian. Ez dakit aurrerantzean zer gertatuko den, baina entrenamenduetan ehuneko ehun ematen jarraituko dut, ahalik eta gehien jokatzeko.

Athleticetik kanpora abentura berri bat hastea zertan da aberasgarria?

Toki batean sei urtean egon ostean handik kanpora zoazenean, mentalki aurrerapauso bat eman behar duzu. Hemen ez dut Lezamako erraztasunik. Norberak atera behar ditu babak eltzetik. Aurreko urteek ez dute balio, hutsetik hasten zara, eta lan eginda besteen konfiantza irabazi behar duzu. Oraingoz asko ikasten nabil eta esperientzia positiboa bizitzen nabil.

Gazte euskaldun dezente dabil taldean. Lagungarria izan zaizu talde-erregokitzeko?



Unai Egiluz, Mirandeseko zaleak agurtzen. MIRANDES

Bai, jakina, jokalaria ezagunak izateak laguntzen du. Hugo Rincon, Urko Izeta, Jon Gorrotxategi, Alberto Dadie, Ander Martin... dezente gara, bai. Hugo Rincon, esaterako, Athleticetik utzita dabil hemen, eta urte askoan ezagutzen dut. Oso hartu-eman ona dugu. Hori izan zen Mirandesera batzeko arrazoi bat. Beste arrazoi bat da jokalaria gazteen alde egiten dutela apustu. Futbol profesionalean apustu hori egiten duen talde gutxiatariko bat dela esango nuke.

Sentitzen duzu presiorik Athleticera bueltatzeko merituek irabazi beharragaitik?

Neure eskura dagoenean zentratuta nago. Egunetik egunera jokalaria lez hobetzeko lan egiten dut. Jakina, badakit hemen ondo egindako guztia lagungarri izan daitekeela datorren urtean Athleticera bueltatzeko. Baina ez dut horretan gehiegi pentsatzen. Une honetan, Mirandesen dut burua eta taldeari dena eman gura diot.

Zeintzuk dira zure indarguneak eta hobetu beharrekoak erdiko atzelari postuan?

Futbola asko aldatu da eta futbolari bakoitzari gehiago eskatzen zaio orain, edozein postutan. Nire kasuan, indarguneetatik hasita, buruz burukoan intentsoa naizela uste dut. Azkarra naiz eta ondo moldatzen naiz atzeko lerroak aurreratuta jokatzeko duenean, espaziora arin joateko ahalmena dudalako. Hobetu beharrekoen artean, alderdi teknikoak aipatuko nuke; baloigaz egindako irteerak hobetu behar ditut, eta baita aurkarien presioa apurtzeko balio duten aurrerako paseak ere. Lanean gogor nabil eta apurka hobetzen nabilela uste dut.

Zelakoa da bizimodua Miranda Ebron?

Lezaman gosaria eta bazkaria eginda genituen. Orain, neu bakarrik bizi naiz etxean. Erosketak, garbiketak, kozinatu... aldeak igartzen da, bai horixe! Baina hemen pertsona eta jokalaria lez hazten eta heltzen nabilela sentitzen dut. Egunerokoa gazte pozik nago.

Zelan esplikatzen da Mirandes, talde apal bat, sailkapenean bosgarren eta gora begira egotea?

Eguneroko lana da errezeta. Talde langilea eta solidarioa gara eta hori igarri egiten da partiduetan. Eta taldeko giro

ona ere nabarmendu gura dut. Hartu-eman itzela dugu denok. Inoz bizi izan dudana aldagarrik onenatarikoa da.

Bigarren Mailan lehenengo esperientzia duzu. Zelako kategorია da? Oso maila lehiakorra eta berdindua da. Taldeen artean ez dago diferentzia handirik eta partiduak detaileengaitik erabakitzen dira askotan. Beraz, guztiz zentratuta egotea eskatzen du. Hiru astez erlaxatzen zaren unean... galduta zaude.

Zelan gogoratzen duzu Athleticen Errege Kopan egindako debuta?

Ez nuen horretaz askorik pentsatzeko astirik izan, asteburuan partidua jokatzetik nentorrelako. Gainera, partidua baino ordu bi lehenagora arte ez nuen jakin jokatu nuen ala ez. Nire bizi-tzako egunik onenatarikoa izan zen. Pribilegiatu bat sentitzen naiz, Bizkaiko ume askoren ametsa horixe delako, Athleticen lehenengo taldeagaz debutatzea.

Entrenatzaile ere aritu zara, Abadiño futbol taldean. Zelan sortu zen aukera hori?

Orain urte bi, Abadiño kade-teak entrenatu nituen, eta iaz gazteak. Kuadrillako bat harrobiko entrenatzaile zebilen han, eta neu ere animatu nintzen. Klubean galdetu, eta baietz esan zidaten. Asko gozatu nuen eta oso pozik aritu nintzen. Entrenatzaileek hartzen dituzten erabaki batzuk ulertzen laguntzen dizu.

Baduzu atzelari erreferenterik edo umetako idolorik?

Umea nintzenean Carlos Gurpegi idolo bat zen niretzat; denentzat, esango nuke. Gerora, Dani Vivian denon ispilu bihurtu da. Edonorik gustatuko litzaiotzake bere pausoei jarraitzea.

Mirandesen ibilitakoa Vivian ere. Horrexegaitik, ba! (barrez)

Eman dizu aholkurik?

Bai, jokalaria lez hazteko toki aproposera nindoala esan zidan, erabaki ona hartu nuela. Zorte ona opatu eta behar nuen edozertan lagunduko zidala esan zidan. Oso eskertuta nago.

"ZORTE ONA OPATU ETA EDOZERTAN LAGUNDUKO ZIDALA ESAN ZIDAN DANI VIVIANEK"

Bidezabaleko historiara igaro den seikotea

ATLETISMOA 20 urtera arteko taldea Europako kros txapelketarako sailkatu da. 42 urteko historian, nazioarteko lehiaketa batera sailkatzea lortzen duen lehenengo aldia da. Hitzordu hori 2025eko otsailean izango da, Portugalen

J.Derteano DURANGO

Durangoko Bidezabal atletismo klubeko 20 urtez azpiko taldeak marka handia lortu du. Joan zen asteburuan Espainiako kros txapelketa lehiatu zuen, Sevillan (Andaluzia), eta txapelkunorde geratu zen. Zilarrezko domina horri eskerrak, Europako kros txapelketara sailkatu da. Klubaren 42 urteko historian, Bidezabal nazioarteko lehiaketara batera joango den lehenengo aldia da. Hitzordu hori 2025eko otsailaren 2an izango da, Portugalgo Vilamoura herrian.

Araudian izandako aldaketa bati eskerrak, 18 urtetik beherako atletekin indartu ahal izan zuten Sevillara joan zen taldea; hala nola Laia Cariñanosegaz, Espainiako kros txapelketa adin tarte horretan. Horrela, Andrea Buenavidak, Naia Cobek, Oihana Artiegak eta 18 urtez azpiko Axpe Ajak, Ixone Sanchezek eta Laia Cariñanosek talde benetan indartsua osatu dute.



Bidezabaleko seikotea.

"Guretzat lorpen garrantzitsua da, etorkizun handiko kluba garelako erakusten duelako", adierazi dute klubetik ohar batean. Europako txapelketari begira erakundeen laguntza eskatu dute. "Lorpen hori ahalbidetu digun

atleten taldeari eustea da gure asmoa, edo ahal bada hobetzea. Horregaitik, ahalik eta babesik handiena lortzen ahaleginduko gara. Ozen eta argi esaten dugu: helburu hori lortzeko, laguntza behar dugu", esan dute.



5 kilometroko probak Alde Zaharreko hainbat kale zeharkatuko du.

Gau krosa Durangoko Alde Zaharretik ibiliko da zapatuan

LASTERKETA Hainbat lasterketa dago, adinka banatuta. Nagusiena 18:15ean hasiko da, Santa Ana plazan

J.D. DURANGO

Zapatu honetan Durangoko Gau Krosaren beste edizio bat egingo dute Durangon, Sekulebedarra klubak antolatuta. Aurreko urteetako irizpideari eutsiz, izen ematea ezingo da Internetez aurretik egin; egunean bertan egin beharko da, lasterketa hasi aurretik. Izen ematerako mahaiaik 16:30ean ipiniko dituzte, Santa Anan.

Mailarik maila, adin guztietako jendeak parte hartu dezake. Umeen lasterketa biak doakoak dira. 10 urtera artekoa 17:45ean hasiko da, eta 11tik 15 urtera

artekoa 18:00etan. Nagusien lasterketari 18:00etan ekingo diote. Maila honetan 10 euro da parte hartzea. Ibilbideak bost kilometro ditu, eta, Santa Ana plazatik hasita, Alde Zaharretik ibiliko dira batez ere.

Probaren historia

Gau Krosak etapa bi izan ditu. 2015etik 2019rako bost aldiak Durangaldea Running taldeak antolatu zituen. Ondoren, urte bati ez zen egin. Orain arte bitik hona berriro da martxan, baina Abadiñoko Sekulebedarra taldeak antolatuta.



JOKALDIA

ENERITZ ITURRIAGA MAZAGA TXIRRINDULARITZA

Hezkuntza, umetatik

Txirrindularitza denboraldia hasteko hilabete batzuk falta dira oraindik, baina horrek ez du esan gura zereginik ez dagoenik. Are gehiago, esango nuke urrian eta azaroan behar-beharrezkoa den lan batean murgilduta gaudela. Makina bat bider azpimarratu dut errepidean errespetuz ibiltzeko umetatik jasotzen den hezkuntzak duen garrantzia, eta horretan gabiltza. Eskolarik eskola bide segurtasunari buruzko klase teoriko nahiz praktikoak ematen ditugu umekin. Lerro hauek, hain zuzen, horrelako jardunaldi bat amaitu bezain pronto idatzitakoak dira eta pare bat hausnarketa plazaratu gura nituzke.

Normalean umek badakite alde teorikoa: semaforotan noiz geratu, seinaleen esangura... Baina, gero, galdetzen diet: "Gurasoek inoz pasatu dute semaforoa gorrian?"; eta erantzunetan komeni baino "bai" gehiago entzuten dut. Eta batzuetan honakoa ere aditzen dut: "Baina denek egiten dute". Horrelako erantzunek

"HILABETE HAUETAN BIDE SERGUTASUNARI BURUZKO KLASEAK EMATEN DITUGU ESKOLETAN UMEEKIN"

"GOGOAN IZAN BEHAR GENUKE 'ETXEAN IKUSIA, UMEAK IKASIA' ESAERA ZAHARRA. HEZKUNTZA ETXEAN HASTEN DA"

gurasoek bide segurtasunaren hezkuntzan duten erantzukizunean pentsatzera naramate. 'Etxean ikusia, umeak ikasia' esaera zaharra gogoan izan behar genuke beti. Etxean hasten da hezkuntza eta kontuan izan behar genuke autoa hartzen dugun bakoitzean. Alferrik ibiliko gara eskolarik eskola hau eta bestea irakasten, gero etxean bestelako jokabideak ikusten badituzte.

Bestelakoan, klaseak dibertigarriak izaten dira, ginkana eta guzti. Bidegorrietan zelan ibili behar den irakastea izaten da klaseetako alderdi bat. Inoiz, txikienei, bizikletan ibiltzen ere irakasten diegu. Umeek oso ondo pasatzen dute, eta, bide batez, bide segurtasunari buruzko nozio batzuk ikasten dituzte. Eta onartu behar dut nik neuk ere oso ondo pasatzen dudala eta atsegin handiz egiten dudana zeregin dela. Azkenean, inbertsio bat, umek orain ikasitakoa gogoan izango dutelako handitzen direnean, eta denok esker-tuko dugun zerbait izango da.

GUARDIAKO BOTIKAK

AZAROAK 22, BARIKUA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

AZAROAK 23, ZAPATUA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

AZAROAK 24, DOMEKA

09:00-09:00

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

AZAROAK 25, ASTELEHENA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

AZAROAK 26, MARTITZENA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

AZAROAK 27, EGUAZTENA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

AZAROAK 28, EGUENA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK



GOZATU GOZOTEGIA
 Ermodo, 11 DURANGO
 Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
 gozatudurango@gmail.com
 f Gozatu Gozotegia
 gozatumgozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Jon (999. alea!) Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

ZORIONTZEKO HIRU BIDE


- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Anbotora edo deitu 946 232 523 telefonora.



ABADIÑO

AMETZ

Azaroaren 25ean 9 urte. Zorionak, Ametz! 9 urtien gerra itzela emon dok, danien endredetan, baina hirien moduko bihotza, gitxik. Segidik iguel. Hi haz hi tipue!



Unai Matias


Azaroaren 20an, 4 urte. Azaroaren 20an Unai Matiasen 4 urte bete zituen. Horren jator jarrai dezazula!



ABADIÑO

Yosu Echevarria

Azaroaren 24an, 40 urte. Yosu, egunero ez dira 40 urte betetzen! Aurtengoa zure urtea izango da!



DURANGO

Iraia


Azaroaren 15ean, 5 urte. Azaroaren 15ean, 5 urte egin zenituen. Zorionak, printzesa, aitaren, amaren eta Lukenen partez! Askok maite zaitugu, amore!



MAÑARIA

Sofia

Azaroak 21. Sofia, gure tulipana, beste urte bat. Nola hazten ari zaren. Urtegun ona opa dizugu. Maitasunez, aita eta ama.



Izadi Larrañaga Calvo

Azaroaren 21ean, 10 urte. Zorionak bihotz-bihotzez zure amama, aitita, ama, aita eta osabaren partez.

MEZA



Josebe Zamalloa Zarate Vedruna-Karmeldar lekaimea

Txilen hil da, azaroaren 19an, 104 urterekin, Puente Altoko Vedruna-karmeldar ahizten komunitatean.



Haren guraso: Markos eta Erramona, neba-arrebak: Inazio abadea, Hilaria eta Gabin Retes, Kandida eta Antonio Aldekoa Otalora, Miren eta Andres Alberdi, Karmelete eta Julen Unzueta, Edurne karmeldar lekaimea. Vedruna Karmeldar bere ahiztak. Lehengusu-lehengusinak.

Izoko, zure begirada apal-zabalak eta zure ahots astiro-gozoak zure loba guztion gomutan diraue.

Meza: datorren domekan, 24an, Ijorretako San Migel Goiangeruaren eleizan HAMABIETAN izango da. Ijorretan, 2024ko azaroaren 20an.



urkioil
E.S. Otxandio · E.S. Izurtza

3zent/litro ERREGAIAN eta %5 DENDAN

urkioil txartela

Eska ezazu Urkioil klubeko txartela gure edozein zerbitzugunetan eta gozatu eskaintzen dizkizugun abantailez: opari eta zozketa eskusiboak, 3 zentimo litroko deskontua erregaian eta %5koa dendan. Profesionala bazara, profesionaleri zuzendutako txartelak ere baditugu. Galdetu dendan edo bisitatu gure webgunea.

Bisita gaitzazu
 @ urkioil
 urkioil.es



KRISTINA MARDARAS SEDRUNI

esker ona

Azaroak 30 ZAPATUA 12:00etan ASKONDOKO KARPAN

Iurreta
Dinasteko Urdala

INMOBILIARIAK



IURRETA ERAIKUNTZA BERRIA. 2 eta 3 logela. Garajea eta trastelekua. **256.000 €-tik aurrera**

AZOKA BERRI 1,2 eta 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **212.000 €-tik aurrera.**

AUKERA

Durango: 115m². 3 logela eta 2 komun. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan. 2 terraza. **C.E.E=E 325.000 €**

Abadiño: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoaldea. Mendi ikuspegiak. **C.E.E=E 198.000 €**

Iurreta: 70 m². 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Hegoaldea. **C.E.E=F 169.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

Montebideo 3 logela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. Ganbara. **190.000 € C.E.E=F**

Murueta Torre 100 m². 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **318.000 € C.E.E=F**

Askatasun Etorbidea Erdi berria. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **235.000 € C.E.E=D**

Matiena: 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 127.000 €**

Ezkurdi: 100 m². 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea aukeran. **239.000 € C.E.E=E**

Durango: Erdigunean dagoen apartamentua. 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 143.000 €**

Berriz: Duplexa. 3 logela, 2 komun. Garaje itxia 2 kotxerentzako. Ikuspegiak. **C.E.E=E 330.000 €**

Astxiki: 147 m². 4 logela eta 2 komun. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Balkoia. **C.E.E=E 380.000 €**

Komentu kalea: 70 m². 2 egongela handiak, komuna, sukaldea despentsarekin eta egongela terrazarekin. **C.E.E=E F187.000 €**

Berriz: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=F 160.000 €**

GARAJEAK SALGAI

ERDIALDEAN: Garajea. **13.000 €**

J.M.ALTUNA: Garajea. **15.000 €**

ALLUITZ: Garaje itxia. **23.000 €**

OLLERIA: 135 m². Lokal egokitua.

ALLUITZ: 70 m². Lokal egokitua. Erakuslehiua.

IURRETA (Bixente Kapanaga): 86 m². Lokal egokitua.

**ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO**

Askatasun etorbidea: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

Pinondo: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO

Atxondo: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

Tabira: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estructures eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Berriz: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

Atxondo: Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

Mendata: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



DURANGO San Fausto: 48 m². Egongela-sukaldea, 2 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta herriko sarreratik gertu. ITE-a pasatutakoa.



DURANGO Antso Estegiz: 63,3 m². Egongela, sukalde jantzia, despentsa, 3 logela eta komuna (dutxarekin). Balkoia. 25 m²-ko terraza. Hobekuntzak behar ditu. Barrualdea (hegoaldea) Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzuzunez inguratuta. ITE-a pasatutakoa. 15,31 m²-ko garaje itxia aukeran. + 35.000 €.



DURANGO Anbrozio Meabe: 117 m². Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea) Argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuzuneak gertu. EGOERA ONEAN. Ganbara eta garaje itxia.



DURANGO Askatasun Etorbidea: (1.991. urtean eraikia): 88 m². Halla, egongela, sukaldea, despentsa, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-iparraldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta eta zerbitzuzuneak gertu. Herriko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garajea. Bigarren garajea erosteko aukerarekin + 20.000 €.



IURRETA Zubiaurre: 66,43 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Egoera onean. Pisu altua. Argitsua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuzuneak. Banaketa berri bat egiteko aukerarekin. ITE-a pasatutakoa.

**BERRIAK****ABADINO**

Eskolako kalea: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.X=G**

DURANGO

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Bartolome Ertzilla kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z=E**

Juan de Olazarán: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

Montorreta kalea: 3 solairuko pabilioia. 1309 m² inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z= Saibuetisita.**

Santikurutz Kalea: Etxebizitza bifamiliarra eraikitako 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 €.**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikituko baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikituko baserria lursailarekin. **350.000 €**

GARAIA

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikituko lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak.

LOKALAK SALGAI / ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.

PISUAK ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.



LAU-HORTZA

SERGIO MURILLO
CORZO

Sinfonia demokratikoa

Zutabe "musikatua" dakart Santa Zezilia egunez agerkari honetara, Amerikako Estatu Batuetatik (AEB) datorren danborhotsak arduratuta.

Demokraziaren mugek jarritako dezibelio maila gaindituko dabe hango agintari barriek, lehenago ere, egingo dabena entsegu gisa, kapitolioa indarrez hartu eben eta. XIX. mendean europar balioen partituragaz heldu bazan pertsonen eta giza taldeen askatasunetan oinarritutako sistema demokratikoaren soinua Atlantiar ozeanoaren bestaldera, indar barriz ekin beharko deuta Europak, konzertu barri honetan, sinfonia demokratikoa argi eta ozen entzun daiten, han eta hemen. Aitzitik, Europako soinu bandara ere, Ukrainako inbasioaren eta Gazako sarraskien burrundara heltzen jaku, eta do-re-mi, horrek egiten dau min. Europak ondo daki gerraren soinuaren barri... ez bat, baizik bi (mundu gerra) behar izan genduzalako Batasuna jartzeko etorkizunaren sinfonia lez.

Ez dira nahikoa izango Brusela aldetik datozen lege itxurako partiturak... musikari bakoitzak bereari ekiten badeutsa. Europarrok badakigu jotzen; gurea ere Herri musikazalea, demokrazia zalea da. Musika-tresna anitzen soinuak, modu harmoniatsuan zuzenduko dauzan lidergo barrien beharra dauka demokraziak munduan, eta orkestraren zuzendaritza Europari hartzea jagoko.

AKUILUA

"Kasualitatea izan da guk biok Etiopian bat egitea"

IRATI RUIZ DE AZUA ETA ANE RENEDO KOOPERATZAILEAK

Irati Ruiz de Azua durangarrak eta Ane Renedo berriztarrak hiru hilabeteko egonaldia egin dute Etiopiako Zway hirian, garapenerako programa batean boluntario

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Ruiz de Azua erizaina da ogibidez, eta desnutrizio programa batean parte hartu du sei hilabetetik sei urtera arteko umeekin. Horrez gainera, oromoeraz alfabetatzeko lanetan lagundu die haien gurasoei. Renedo diseinatzaile grafikoa eta hezkuntza artistikoko irakaslea da, baina ingeles irakasle aritu da umeekin, eta diseinuari loturiko formakuntza saioak egin ditu irakasleekin.

Eta, hara non, Durangaldeko gazte bik boluntario lanetan igaro dute uda, non eta Etiopian.

Irati Ruiz de Azua: Eusko Jaur-laritzaren *Gazteakukera* programan eman genuen izena, eta zortzi gazte Etiopia Utopia Gobernu Kanpoko Erakundeagaz esku hartu dugu Etiopian. Zortzi gazte horietatik hiruk Addis Abeba hiriburuan egin zuten egonaldia. Gainerako bostek, Zway herrian. Ane eta biok azken horretan izan gara.

Hara! Eta elkar ezagutzen zenuten lehenagotik?

Ane Renedo.: Ez! Kasualitatea izan da Durangaldeko gazte bik han bat egitea.

Zer zeregin izan duzue han?

A.R.: Zeregin desberdinak izan ditugu. Ni, goizetan, umeei inge-



Irati Ruiz de Azua eta Ane Renedo, Etiopian. ANE RENEDO

lesa irakasten ibili naiz. Arratsaldeetan, aisialdi kanpaleku moduko batean egoten ginen eskulanak, saskibaloia eta halakoak erakusten. Horrez gainera, diseinu grafikoa loturiko kontuak landu ditut, eta gai honetan trebatu ditut irakasle batzuk.

I.R.A.: Nik, goizetan, umeak pisatu eta horren arabera elikadura formulak prestatzen nituen. Eta umeen gurasoei alfabetatze lanak egin nituen, alfabetoa eta idazkera erakutsita. Hori bai, komunikazioa gatxa

izan da, nigana etortzen ziren emakumeek ez zekiten-eta ingelesa. Arratsaldeetan, txirula jotzen erakusten genien umeei; musika entzun eta dantza egiten genuen emakumeekin. Azken hauentzat arnasbidea zen tarte hori.

Zerk bultzatuta erabaki zenuten lankidetzaren programan izena ematea?

A.R.: Otsailean New Yorketik bueltatu nintzen, han urtebete lanean egon eta gero. Etxera bueltaturikoan lankidetzaren programaren berri izan nuen. Ez nuen askorik pentsatu; izena

eman nuen. Aukera ona zela ikusi nuen.

I.R.A.: Geu Be elkartean nabil boluntario, eta han izan nuen lankidetzaren programaren berri. Azken finean, honek guzti honek gazteok sentsibilizatzea du helburu. Horrez gainera, beti izan dut beste leku eta kultura batzuk ezagutzeko grina.

Zer eman dizue esperientzia honek?

A.R.: Gatxa da azaltzen. Behin halako esperientzia bat igarota, zure egunerokotasunari eta ohi-turei begira jartzen zara. Jada ez dituzu gauzak berdin ikusten. Zu zeu ere ez zara berdina. Zeure lanari buruz eta jendeagaz dituzun hartu-emanen buruz goetoa egiten duzu.

I.R.A.: Zeure begiz ikusten duzu munduko bazter batean ala beste jaiota dena izateak edo ezer ere ez izateak dakarren injustizia. Esperientzia honek emandakoa buruz galdetzen didatenean, uste dut halako zeozer bizi izan duenak bakarrik ulertu dezakeela esperientziaren beraren ekarpena. Bizipenak ahalik eta ondoen kontatu arren, sekula ere ez naiz aseta geratzen. Hala ere, ondo dago berbeekin kontatu ezin dena zeure barruan geratzea. Esperientziak kooperazioari loturiko ikasketak egitea pentsarazi dit.

Halako kooperazio programa batean parte hartzea gomendatuko zeniekete irakurleei?

I.R.A.: Honako hau esango nieke: turismoa egitea baduzu buruan, ez joan; bestelako errealitate bat lekuan bertan ezagutzeko grina hori baduzu, joan, baina kontuan hartu ez zoazela ezer aldatzera, ezta hango pentsamendua aldatzera ere. Zuk handik alde egiterakoan ere, bizitzak han aurrera jarraitzen du.

DURANGO

SAN ROKE BARRIA



Bilatzen zenuen aukera.

Etxebizitza modernoak kokapen bikainean.

2 logela:

249.000€ -tik aurrera + BEZa

Garaje itxia eta trastelekua barne.

3 logela:

314.000€ -tik aurrera + BEZa

Garaje itxia eta trastelekua barne.

Zure hitzarmena eskatu:

sukia.com

edo deitu iezaiguzu:

946 462 041

 **sukia**
Zure etxean zaude. Estás en tu casa